

Arasate

1999ko
Martxoak 18
444. zenb.



11 aldiz Korrika

IKUSPEGIA: KARMELE PEREZ • EUREN IKUSPUNTUTIK: ARANTZA ALONSO
KULTURA: ARRASATEKO EUSKARA • KIROL ELKARRIZKETA: MAITE OTXANDIANO



Oso ondo egin behar dira
autoak, bost urterako bermea
eman ahal izateko

“3+2 Excellent 5 urteko Bermea” programa berriari esker, Nissanek zure ibilgailuaren ohiko bermea 3 urtetik 5 urtera zabaltzeko aukera eskaintzen dizu orain.

Kosto urri baten truke, bost urtean zehar Nissanen bermeaz gozatu ahal izango duzu, baldin eta edozein ezusteko izaten baduzu.

Ikusten duzu. Nissanen sinestuta gaude autoak ondo egiten ditugula. Gainerako guztiak urteak kentzen saiatzen diren bitartean, guk hartu egiten ditugu.



Gidatu eta gozatu

ALDIBI AUTOAK, S.A.

ZIGARROLA, 1 - TEL.: 943 71 20 02 - 20500 ARRASATE



Gerrek, oskarra

Oskar sarien garaian gaude. Zinema mundukoak eta zinezaleak irrikitan daude irabazleak ezagutzeko. Horrelakotan, era eta gai guztietako filmak ikusi ohi dira. Haatik, aurtan badago zer baitaipagarria: sari proposamen gehien dituzten filmeen artean, bi, gerra filmak direla, alegia. Gaur horietako bat ikusi dut eta ezin esan epel utzi nauenik.



Karmele Perez

abstrakzioaren atzean, Bigarren Mundu Gerrako pasadizo bat, eta berriz ere estatubatuarrak eta japoniarak, eta berriz ere alde batekoen zein bestekoaren oinazea. Baita azken urteotan nahiko moda bihurtu den kontu bat ere: film estatubatuarrak estatubatuarren indarkeria kritikatzeko. Film horiek sariak jasoko dituzte, eta asko txalotuko dituzte, eta

jende askok ikusiko ditu, eta iritzi aniztasunaren erakusgai izango dira, eta Estatu Batuak oso harro egongo dira sortutako produktuez.

Bitartean, mundu erreala —ez malkoak eragiten dizkigun pantailaren atzekoak— gerra eta gatazketan odolusten jarraitzen du lau kontinenteetan, alde guztietako soldaduek gero eta tiro eta bonba gehiago jaurtitzen dituzte eta behin eta berriz ahazten dute noren ondoan egin duten bidea, nor zen haien

laguna eta non gelditu zen, nor den haien parean haiek bezala dardarka dagoen pertsona, izututa, noraezean. Zentzugabekeriaren zurrumbiloi murgilduta, gizatasunaren ezaugarriak galduz goazela dirudi, urratsez urrats.

Eta noren interesek mugitzen eta elikatzen dituzte gatazka horiek? Noren esku beltza dago mundu zabalean gertatzen diren gorabehera horien atzean? Norbaitek azalduko dit zer den koherentzia? Izan ere, kritika egitea gauza bat baita eta koherente izatea beste bat oso bestelakoa, bistan denez. Oso bestelakoa da baita estatu baten jarrera eta jokaerak auzitan jartzea ere. Hori ez da, jakina, aipatutako filmaren zeregina.

Bai. Filmek, ziur, sariak jasoko dituzte. Bihotz asko hunkituko dira eta malko asko isuriko hango irudiak ikusita eta hausnarketak entzunda. Baina, zoritxarrez, gure gizarteari eta gure munduari ez diete ezertarako balio, filmek ez baitituzte gaur egiten ari diren gerrak gelditzen, ezta gaur hiltzen ari diren pertsonak salbatzen. ■

Naturaren biolentzia eta maitasuna, ilunaren ondorengo argia eta bizitzaren ondorengo heriotza, denak nahasten ziren hango plano eta mezuetan: ametsa eta errealtate, nora eza eta arima barreneantzez egindako bidaia, eromena eta herioa, botere bihozgabea eta begirada bihozbera, gordintasuna eta poesia film berean bilduta.

“Filmek sariak jasoko dituzte. Bitean, mundua gerretan odolustutzen da”

Eta orain arteko

“Euskadiko Kutxaren plan estrategikoak ezarria du bere negozioaren %15 Hego Euskal Herrietik kanpo egitea”

Juan Jose Arrieta

BAZENEKIEN?

Chateau de Groussay

XVIII. mendearren hondarrean Juan Antonio Beistegi mondragoetarra Mexikorantz abiatu zen. Oinetan espartinak eta sakelean txanpon gutxi batzuk besterik ez omen zermatzen. Mexikon diru asko egin zuen, ordea.

Haren ondorengo batek, Carlos de Beistegik, Groussayko gaztelua erosi zuen, Paris ondoan. Bigarren Mundu Gerran eta ondorengo urteetan, Europako sibiritarrik handienen gordelekua izan zen Groussay: Rotschildarrak, Salvador Dali, Jean Cocteau eta bese ahazturi asko hantxe ibiltzen ziren jairik jai.

Carlos hil egin zen eta haren oinordekoak, Juan de Beistegik, enkantean saldu nahi du Chateau de Groussay. Sotheby's etxeak 1.500 milioi pta. tan saltzea espero du. Barruko ondasunak, berriz, 2.000 milioitan sal litezke.

50

milioi pta pasatxo eman ditu Euskara Batzordeak diru laguntzetan

Arrasateko Udalaren Euskara Batzordeak 50.356.000 pta eman ditu diru laguntzetan. Lehenengo aldiz, lankidetzaz hitzarmen bat sina lezake AEK-Erdi euskaltegiarekin. Diru gehien Arko, AED eta Txatxilipurdi elkarteek jasoko dute.



ARCO
ARRASATE
KOMUNIKABIDEAK

ARRASATE PRESS
Argitaratzailea: ARKO (Arrasate Komunikabideak) Otalora kalea, 31 20.500 ARRASATE (Gipuzkoa)
Tel.: 943 71 25 11. Faxa: 943 71 23 89
E-mail: arrasatepress@readyssoft.es
Tel. mugikorra: 908 39 78 86

Laguntzailea: Arrasateko Udala. **Zuzendaria:** Joxe Aranzabal. **Kazetariak:** Marijo Degraças, Ubane Madera, Maider Osa. **Publizitatea:** Nerea Zallo, Arantzazu Lagunilla. (Tel.: 943 71 23 81/ 943 71 23 92).
Administrazioa: Agurtzane Gaiñzarain (Tel.: 943 71 23 90) **Diseinua:** Txos Azumendi. **Asteburuetako berriemakiloa:** Gontzal Landa. **Bekaduna:** Anartz Agirre. **Kolaboratzaileak:** Mikel Inzar, Udaleko Gazteria Sali, Iker Barandiaran, Karmele Perez, Jose Mari Velez de Mendizabal. **Banaketa arduraduna:** Jaxone Mendizabal-AED. (Tel.: 943 77 12 28). © ARRASATE PRESS. **Tirada:** 6.400. **Logo-Gordailua:** 112498. **ISSN:** 0214-4654. Frankeo kontzertatua. **Inprimategia:** Gertu Koop. E. (Zubillaga, Oriati).

ARRASATE PRESSek ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.

 **ARRASATE PRESS** paper birziklatuan egiten da.

Azala: Txos Azumendi.



Arasateko Udaleren laguntza



Gipuzkoako Foru Gipuzkiaren laguntza



Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailaren laguntza

GUARDIAKO FARMAZIAK

- Osteguna, 18**
• Gauz eta egunez: Irizar, Erguin
- Ostirala, 19**
• Gauz eta egunez: Amezua, Santa Marina
- Larunbata, 20**
• Gauz eta egunez: Zarugalde, Zabala
- Igandea, 21**
• Gauz eta egunez: Ruiz, Maala
- Astelehena, 22**
• Gauz eta egunez: Morales, San Andres
- Asteazkena, 23**
• Gauz eta egunez: Azkoaga, Ferrerías
- Osteguna, 24**
• Gauz eta egunez: Español, Iturriotz

BEHARREZKO TELEFONOAK

- Eritetxeak**
Arrasateko Eskualde-Ospit. 943 03 53 00
Igualarioria 943 79 05 00
Santa Agedako Ospitalea
(gizonak) 943 79 39 00
(emakumeak) 943 79 44 11
Buru osasunerako zentrua 943 79 90 11
- Gurutze Gorria**
Bergara 943 76 55 76
- DYA**
Antzuola 943 78 71 57
- Anbulatorioak**
Arrasate (Larrialdiak) ... 943 03 53 00
Txanda hartzeko: medikuntza
orokorra eta pediatria 943 03 52 50
• Espezialitateak 943 03 53 11
• ikuskatzailea 943 03 53 52
• Kanpoko kontsultak: 943 03 53 11
• Fax zenbakia: 943 03 05 14
Aretxabaleta 943 79 74 58
Aramaia (945) 943 45 51 16
- Anbulantziak**
Gipuzkoako ambulanziaz 943 45 87 44
- Udalzainzioak**
Oñati 943 78 04 11
Bergara 943 77 91 06
Arrasate 943 79 14 39
Aretxabaleta 943 79 10 52
Eskoriatza 088
- Ertzaintza**
Arrasate 943 79 71 99
- Suhiltzaileak**
Udal taldea 943 79 09 00
Udal taldeko suhiltzaile burua 943 79 20 72
Zubillagako Eskualde-Parkea ... 088
- Matxurak**
Urak (udal zerbitzua) ... 943 79 09 00
Argindarra (Iberduero) ... 943 12 01 62
Gasa 900 40 05 23
..... 943 79 78 44
..... 943 79 76 78
- Garraioak**
Taxiak 943 79 12 22
PESA 902 10 12 10
- Hirugarren adinekoentzako zentruak**
Iturbide Egoitza 943 79 72 11
Abaroa jubilatuen egoitza 943 79 81 57
- Monterron liburutegia**
Monterron 943 77 01 05
- Irratia**
Arrasate Irratia 943 79 58 77

EIBAR-GASTEIZ AUTOBIDEA ZERTARAKO?

Administrazioak Eibar Gasteiz autobidearen lanak apirilean hasteko asmoa duela eta, hasi da Soraluze eta Bergarako lurrak desjabetzen. Eraikuntza erraldi honentzako diru nahikorik ez dagoenez, momentuz Soraluze eta Bergara arteko tartearekin hasiko dira, justu inolako beharrik ez dagoen tokian. Zergatik izango ote da? Itoitzen bezala, betiko aitzakia jartzeko, lanak hasiak direla eta ezin direla gelditu, alegia?

Administrazioa ziria sartzen besterik ez dabil gai honen inguruan: azken momentua arte ez zuten autobidearen proiektua publiko egin, alegazioen epea abuztuan jarri zuten, IGP/NIP-etatik ateratako erantzuna ez dute errespetatu, autobide honen beharra dugula saltzen ari zaizkigu, A-8 (Bilbo-Behobia) autobidearen bidesaria berrogei urtez luzatuko dute, 2003. urtean bidesaririk gabea izan behar zenean, etabar, etabar.

IGP/NIP-etan gaur egungo errepedeen hobekuntzetan oinarritutako proposamenak hobetsi ziren, administrazioaren proposamenak (autobidea), berriz, %15en sostengua lortu zuen soilik. Hala ere, ez dute herriaren hitza errespetatu eta autobidea egitea erabaki dute.

Autobide honen premiarik ez dago, ez dugu behar Maltzagatik Gasteizera joango den lau erreiko errepede berri baten eraikuntza, baizik eta

bailara honetan dauden herrien arteko komunikazioa hobetzea. Deba Bailaran dagoen trafiko arazoa barne trafikoa da, hau da, Bergaratik Arrasatera doana, Eskoriatzatik Bergarara, etabar. Beraz, bidesaria izango duen autobide batek ez digu arazoa konponduko. Benetan behar dena zera da: orain dagoen errepedea oraingo egoerari egokitzeta, egin berriak diren saihesbide guztiak erabiliz. Baina administrazioak bere baliabide guztiak erabiltzen ditu hau horrela izan ez dadin, eta autobide baten beharra saltzen digu, hobekuntzaren premia baztertzuz.

Ingurugiroari dagokionez ere gure bailarak errespetu handiagoa behar du. Zer gertatuko da gure bailararen ingurugiroarekin administrazioak proposatzen dituen lan erraldi guztiak egiten badira? Eibar-Gasteiz autobidea, Lastertasun Handiko Trena, Elgea eta Irukurutzetako bi zentral eoliko handiak...

Ordua da horrelako lanak seriotasun handiagorekin hartzeko eta, behingoz, herriaren benetako beharrak bultzatze.

Deba Bailarako Eguzki

Okerrak zuzentzen

Joan den aleko txutxumutuetan andra koadrila bat atera genuen. Uribe auzokoak zirela esan genuen. Uribarrikoak direla argitu digute. Barka.

KAIXO GREGORIO:

Ezer zailik bada, hildako bati buruz idaztea da. Nik ez zintudan asko ezagutzen, baina lerro hauek idaztera noakizu. Mundu guztiari esateko makinek ez dutela pentsatzen; bakarrik dakite "hilak lurrek jan eta bixiak bixi lan" egin behar izaten dutela. Izerdi asko kentzen digute, baina biziren bat edo beste aurretik eramanez. Beti.

Egun batzuk lehenago iritsia nintzen zure herri honetara. Altamirako sasiaren artean, ahuntzak bagina bezala makurturik, elkarri begiratu genion begietara. Ziztu bizian atera ginen handik ordenuko zaintzaileengandik ihes. Patuak nahi izan zuen egoera hartan elkar ezagutzera.

Aitortu behar dizut beti mirestu nuela zure plaza gizonatasuna. Batez ere jaigiroan: izan ere, porlanaren berdeak, nahiz eta tonu ilunekoa dirudien, argi oso gordina ematen du.

Ea zure joanak ohartarazten gaituen higienerari eta segurtasunari minutu batzuk eskaintzea bizitza-urteak irabaztea dela. Eta odolustu zinen tokietan zehar pasatzen garenean, hormek, espaloiek eta teilek oroit diezagutela ez garelako animaliak.

Zure lankide guztiok eta eraikuntzako guztiok kafe konploto bat hartuko dugu zure ohorez. Zure aurpegi garbiak, oi peoi, arrazoia emango dio egun berriari.

Joseba Kostana

Sili Sili

Martxa eta estilo handiko arropa

Iturriotz, 9 • ARRASATE
Tel.: 943 79 81 82

UGARAN
jatetxea

Garagartza auzoa
Tel.: 943 79 76 58
ARRASATE


M

MEMESA
Industria hornidurak

Tel. 943 71 24 25

Udalak zuzen jokatu du portugaldarren auzian?

la bost urte gure artean egin duten ijito portugaldarrek Arrasatetik alde egitea erabaki dute.



Gabriel Sanz
(46 urte)
Langilea

Ez dut jarraitu gaia eta ez dakit zer erantzun.



Juan Cruz Aranburu
(37 urte)
Langilea

Gaizki. Egin dutena baino gehiago egin zitekeen.



Fidel Diaz
(84 urte)
Erretiratua

Nik zer dakit udalak zer egin duen!



Maria Mancebo
(32 urte)
Langilea

Ez dakit zer esan. Ondo dago eurei laguntzea baina hemen ere jende asko dago laguntza behar duena.



Angela Agudo
(33 urte)
Langilea

Eduki behar dute leku bat bizitzeko, baina ez dakit hori udalak eman behar dien edo ez. Galduta nabil.



Aitor Otadui
(41 urte)
Langilea

Ez nago oso jantzita gai honetan. Batetik ez dago ondo bidaltzea. Bestetik, jendeak ez ditu nahi izaten aldemenean.



Karmen Arrieta
(75 urte)
Erretiratua

Inor ez gara arrazistak, baina obretako orduan, denok gara. Inork ez dugu gura horrelakorik ondoan izatea, baina eskubide guztiak dituzte.



Yolanda Lacruz
(14 urte)
Ikaslea

Ez dakit. Ez dut gaia jarraitu.

M Altzariak
Diseinua
Apainketa
ARENAZA

Bizkai, 1 • ARETXABALETA
Tel.: 943 79 08 07

BASABE JATETXEA

Menu eta afariak
Boda eta banketeak

Tel.: 943 79 91 84

ARETXABALETA

Ψ
NARE
psikologoak

Haurrak - helduak - bikoteak

RPS: 292/98

Isasi, 17 - 1 • EIBAR •
Tel.: 943 20 05 95

Ipek Denda

Iturriotz, 19 (Herriko plaza) ARRASATE

18

osteguna

■ ZINEA

Abril filma eskainiko dute Amaia antzokian gaueko 21:30etatik aurrera. Sarrera 450 pta.

■ ZABOR HORIA, ZER DA HORI?

Gaur izango da *Zabor horia, zer da hori?* antzerki saioaren azken saioa. Panta Rheiren lana Eskoriatzako herriko plazan ikusi ahal izango da, arratsaldeko 18:00etatik aurrera.

■ KONTZERTUA JAM ARETOAN

Nevermore, *Lefay*, *Nocturnal Rites* eta *Sacred Steel*, taldeak arituko dira Bergarako Jam aretoan, gaueko 22:00etatik aurrera. Sarrera aurrez 1.500 eta lehiatilan 1.800 pta kostako da.

19

ostirala

■ ZINEA

El abuelo, Alai zineman, 17:00etan, 19:30etan eta 22:00etan.

■ SU TA GAR

Eibarko *Su ta Gar* taldeak kontzertua eskainiko du gaztetxean, gaueko 22:00etan.

20

larunbata

■ ZINEA

Quédate a mi lado, Alai zineman, 17:00etan, 19:30etan eta 22:00etan.

YOGA IKASTAROA

Arrasateko Yoga elkarteak Hatha yoga ikastaroa antolatuko du 10:00etatik 14:00etara eta 16:00etatik 20:00etara. Burua eta gorputza bateratzeko saioak izango dira Hatha yogaren bidez. Saioa Encarna Mendezek zuzenduko du. Berri gehiago 943 79 88 53 edo 608 57 50 29ra.

21

igandea

■ ZINEA

Quédate a mi lado, Alai zineman, 17:00etan, 19:30etan eta 22:00etan.

22

astelehena

■ ZINEA

Quédate a mi lado, Alai zineman, 19:00etan eta 21:30etan.

■ ODOL EMATEA

Odol emaeleek anbulatarioan izango dute txanda, arratsaldeko 16:30etatik 20:00etara.

■ GITARRA KONTZERTUA

Arrasate Musikalek gitarra kontzertua eskainiko du Arrasate Musikalen areto nagusian. Emanaldia arratsaldeko 19:00etan izango da.

23

asteartea

■ ZINEA

Quédate a mi lado, Alai zineman, 19:00etan eta 21:30etan.

■ ARKOREN BATZAR OROKORRA

Arkok urteko batzar orokorra egingo du arratsaldeko 18:30etatik aurrera, Mondragon Hotelean.

■ KIROLA ETA OSASUNA

"Kirola eta Osasuna" izena duen hitzaldi-mahai ingurua antolatu du La Merced ikastetxeako Argia elkarteak. Eukeni Olabarrieta izango da hizlaria eta besteak beste, kirolaren onuren eta ezagueren inguruan arituko da. Saioa arratsaldeko 18:30etan izango da, La Merced ikastetxean.

■ KANPO ZORRA MINTZAGAI

Arrasateko Gobernuaren Kanpoko bost erakundek (GKE) "Kanpo zorra" izeneko hitzaldia antolatu dute Monterronen. Hizlaria Hegoa (EHUko GKE)ko kide bat izango da. Hitzaldia arratsaldeko 19:00etan izango da, Monterronen.

■ ODOL EMATEA

Odol emaeleek anbulategian izango dute txanda arratsaldeko 16:30etatik 20:00etara.

■ FAGOT ETA SAXOFOI KONTZERTUA

Arrasate Musikalek fagot eta saxofoi kontzertua antolatu du, Arrasate Musikalen, 19:30etan.

24

asteazkena

■ ODOL EMATEA

Odol emaleek ambulato-
rioan izango dute txanda arra-
tsaldeko 16:30etatik 20:00eta-
ra.

■ KORRIKA 11

- 15:00etatik 16:00etara
Korrika Txikia.
- 17:30etatik 19:00etara,
Trikimailu Express, kale ani-
mazioa, plazan.
- 19:00etan, erraldoiak eta
buruhandiak.
- 20:00etan, herri txiki-
teoa.
- 20:30etan eta 21:00etan,
Korrikako bideo emanaldia
herriko tabernetan.
- 21:30etan kalejira triki-
tilariek.
- 22:00etatik aurrera afa-
ri-festa, Kataiden.
- 04:00etan, ongi etorria
Korrikari, San Isidron.
- Korrika pasa eta gero txo-
kolatada, Seberon.

25

osteguna

■ ZINEA

Hanna Bi filma eskaniko
dute Amaia antzokian, ilun-
tzeko 21:30etatik aurrera.
Sarrera 450 pta. kostako da
(gazte txartelarekin, 400).

■ KONTZERTUA GAZTETXEAN

Redshift Madrilgo hard-
core taldeak kontzertua eskai-
niko du, arratsaldeko 17:00eta-
tik aurrera. Talde honek aurre-
ko egunean, asteazkenean,
Villa de Bilbao sarian joko du,
Bilbon. *Gospel Killers* Mon-
dragoeko taldea izango dute
lagun, gaxtetxean.

26

ostirala

■ KONTZERTUA ARRASATE MUSIKALEN

Arrasate Musikalek kon-
zertua eskainiko du egoitza-
ko areto nagusian, arratsaldeko
18:30etan.

■ 3. ADINEKOENTZAKO OPORRAK

Inersok 1999-2000
urterako erretiratuentzat
antolatu dituen oporraldiak
hasi dira jadanik.
A aukeran penintsula eta
Balear Uharteak leudeke
eta B aukeran, berriz,
Kanariar Uharteak,
Portugal eta kultura
bidaiak. Interesatuek
udaletxeko Gizarte
Zerbitzura jo dezakete,
apirilaren 15a baino lehen.

■ SEXUALITATE LANTEGIA

"Emakumeak eta gizo-
nak, nolako desioak, nola-
ko kontraesanak" izena du-
en sexualitate lantegia an-
tolatu dute Gazte Bulegoak
eta Emakume sailak. Ikas-
taroa apirilaren 20a eta
27a bitartean eta maia-
tzaren 4 eta 11 bitartean
izango da. Izen ematea
martxoaren 31ra arte.

■ MASAJE IKASTAROA

Arrasate Yoga
elkarteak "Masaje
sentimen gestaltico"
ikastaroa antolatu du.
Martxoaren 27an eta 28an
izango da, 10:00etatik
14:00etara eta
16:00etatik 20:00etara.
Partehartzaileek jantzi
erosoak, izara handi bat,
eskuzapi handi eta
eskuzapi ertaina eraman
beharko dituzte.
Ikastaroak 15.000 pta
balioko du eta Kalliforniako
"Inter Touch" zentruko
irakasleak eskainiko du.

■ KILOMETROAK 99

Dagoeneko salgai jarri
dute Kilemetroak 99ko
materiala. Arrasaten
Naroki liburudendan eta
Hiper Eroskin lor daitezke.
Eskoriatzan, berriz, Santa
Ana kaleko Dorleta
liburudendan.

■ FAMILIA ETA GIZARTE HEZIKETARAKO ZENTRUA

Ikastaro ugari antolatu
ditu Familia eta Gizarte
Heziketarako Zentruak.
Goizetan, Farfalgintza,
disco dantza eta adimen
lantegiak antolatu dituzte.
Arratsaldeetan, berriz,
loragintza, jantzigintza eta
konponketak eta bizkar he-
zurreko giharren indartzea,
gozogintza eta osasunean
sendatu. Gauetan ere
ikastarorik izango da:
apainketarako oihalgintza
eta geriatría ikastaroak.
Interesatuek 943 79 04 59
edo 943 79 56 40
zenbakietara dei
dezakezue.

■ ARGAZKIGINTZA IKASTAROA

Gazte Bulegoak
eraturik, argazkigintza
ikastaroa egingo da ASA
taldearen laguntzaz.
Ikastaroa apirilaren 17tik
ekainaren 5era bitartean
izango da. Saioak larunbat
gozietan 10:30etatik
13:30etara izango dira.
Matrikulak 5.000 pta
balioko du eta ikasle eta
langabetuentzat, berriz,
3.000 pta.

■ ANTZERKIA KURTZEBARRI ESKOLAN

Aretxabaletako
Kurtzebarri Eskolak VII
Antzerki Astea antolatu du.
Martxoaren 22, 23, 24 eta
25ean hainbat antzerki
saio egingo dituzte
eskolako neska-mutikoei.
Saio guztiak arratsaldeko
18:00etan hasiko dira.

USTEAK USTE

Ijitoak badoaz

Zaldispén hainbeste denbora egin duten bi familia portugaldarrek ezin izan dute sustrairik egin Arrasaten eta badoaz. Udalak behin eta berriro ukatu die erroldatzeko aukera. Zenbait elkartek eta erakundek, aldiz, laguntza eskaini diete hasiera-hasieratik. Erdian, herritar gehienon ezaxola.

Irudipena dut kontu honetan askok nahiko zabar jokatu dugula: batzuek ez dituztelako beren jarreraren arrazoiak garbi azaldu; beste batzuek ez dutelako asmatu ijitoen problematika bere osoan azaltzen; gehienok hesiaren atzealdetik egon garelako begira, gure bildurrak izkutatu.

Ijitoak badoaz. Arazo bat gutxiago, esango du norbaitek. Ez da egia, zeren hurrengoak datozenean berdin-berdin egongo baikara, zer egin jakin barik. Ezin gara harrotu gertatuakoaz. Ez litzateke txarra izango beste herri batzuek, Gasteiz kasu, ijitoen arazoei eskaini dizkieten irtenbideak aztertzea. Ikasiko genuke zerbait.

Joxe Aranzabal



Biteri eta Arano

Arantza Alonso*

Mende honen hasieran Arrasatek bi pertsona ezagutu zituen, dena hezkuntzaren eta kulturaren alde eman zutenak. Herriak aitortu egin die eskuzabaltasun hori, bata herriko seme kuttun eta bestea semetzako izendatuz. Horrekin batera, herriko bi kaleri haien izenak eman zitzaizkien: Biteri etorbidea eta Maisu Arano kalea.

Pedro Biteri Arana Arrasaten jaio zen 1833ko uztailaren 18an eta Miarritzen hil, 1908ko maiatzaren 21ean. Bere bizitzako zatirik handiena Frantzia bizi izan zuen. Mende honen hasieran "Merezimendu Handiko Patrizio Euskaldun" gisa ezagutzen zen.

Aita eta anaia hil zitzaizkionean, dirutza handiaren jabe egin zen. Filantropo handia zenez gero, irakaskuntzaren alde erabili zuen senipartea, eskolak eraikiz eta ondarez hornituz.

Intuizioak esan zion ez dela lurren handitasuna herriak handi egiten dituen, baizik eta beren herritarren prestakun-

tza. Ulertu egin zuen, halaber, hori lortzeko maisu-maistra onak behar zirela eta baita eskola aproposak, ezinbesteko faktoreak herriak bere onera ekartzeko.

Estaduak aitortu eta sariatu egin zuen Biteriren lana. Alfontso XII.ren Gurutze Handia eman zion, berak harrotasunez erakusten zuena.

Bere lana osatzeko, Pedro Biterik Felix Arano eta haren emaztea Teresa Garcia ekarri zituen eskolara. Batzuek alderatu egin dute Biteriren eta Aranoren lana aireplanoren egileak eta gidatzen duenak egiten dutenarekin. Biak hain estu uztarturik zihoazen mondragoetarren oroimenean eta izpirituan, ez baitze-

goen ulertzerik Biteri Aranorik gabe.

Felix Arano y Saez de Adana pedagogo eta maisua Agurainen jaio zen, Araban, eta Arrasaten hil zen, 1929ko apirilaren 23an. Erabateko ardurarekin jabetu zen karguaz eta bere lanak eta indarrak, adimena eta ezagupideak, dena, bere ikasle gazteen hezkuntzan erabili zituen. Arrakasta izugarria lortu zuen eta haren ospea hainbeste zabaldu zen, non Irakasle Eskoletako ikasle eta irakasleak etortzen baitziren Arrasatera, maisuaren metodoak ezagutzera. "Maisu-maistretan maisu izan zen", esan zuen Leopoldo Sanz, garai hartan Gipuzkoako lehen mailako irakas-kuntzako ikuskatzaileak, "Mondragoeko eskolak maisu-maistra espainiarren Meca izan beharko lirirateke". Alfontso XII. Ordena Zibileko zaldun egin zuten.

1925eko ekainaren 19an Arrasateko Udalak semetzako izendatzea erabaki zuen eta erdiko kaleari ere "Arano jaunaren kalea" deitza. Haren emaztea Teresak lan handia egin zuen eskolan eta Fundazioaren zutaberik sendoenetarikoa bat izan zen.

Maisu-maistra haien ikasleak hurbiletik ezagutzeko parada izan dugunok, egiaztatu ahal izan dugu haiei buruz hitz egiten dutenean gurasoak balira bezala jartzen dituztela.

“ Intuizioak esan zion herritarren prestakuntza dela herriak handi egiten dituen ”

Plus Ultra taberna

Maalako Errabala, 17
ARRASATE
Tel. 943 79 20 57



ZUBIZARRETA LANTEGIAK

Gipuzkoa Etorbidea, 22
ARRASATE
Tel.: 943 79 15 65

astea bi hitzetan

■ **Lur jauziak Mugarrietan**

Azken aldian izandako euriteek lur jauzi bat eragin dute Mugarrietan, Chapime garaiearen atzealdean. Jausitako lurrak erdi estali egin zuen transformadore elektrikoa duen txabola eta kalteak eragin zituen garajeko hiru beribiletan. Garajeko kudeatzaileak adierazi duen moduan, eragile bat baino gehiago izan ditu lur jauziak: joan den udan egin ziren hondalanak, Muxibarko zabortegira doazen kamioien burrunba eta oraindik orain inguru hartan egin den pinu mozketa, negu honetako euriak ahaztu barik, noski. Paulino Rivasen hitzetan, euste horma bat falta da hor.

■ **Fagor eta Thyssen**

Fagor Arrasatek Alemania-ko Thyssen enpresari altzai-

ru erdoigaitza ebakitzeko makineria salduko dio. Salmenta honekin Fagor Arrasatek 600 milioi pezeta irabaziko ditu. Makineria honen bitartez, 30.000 kiloko bobinak moztu ahal izango dira, 2.100 milimetroko zabalerako zatietan. Makina honek milimetro karratuko 900 Newton-eko indarra lor dezake. Zatiketan erabiliko duen gehienezko abiada, bestalde, minutuko 50 metrokoa izango da.

■ **DVren ordezkari-tza**

Diario Vasco egunkariak Deba Bailarako ordezkari-tza ireki zuen joan den astelehenean Uarkapeko etxeetan. Bulego berriak 100 bat metro koadro ditu eta Otlora Kaleko 16an dago. Arrasate, Bergara, Oñati, Aretxabaleta eta Eskoriatzako berriemaileek etxe berrian

egin dute lan hemendik aurrera. Goizetan 10:00etatik 13:00etara eta arratsaldeetan 16:00etatik 19:00etara egongo da zabalik. Herrietako kronikak, erreportajeak eta *Bertan* gehigarria ere hortxe egingo dira.

■ **Kutsatutako lurrak**

Eusko Jaurlaritzako Ingu-rugiro Sailak txosten bat bidali du Arrasateko Udalera, zehaztuz zein lur izan daitezkeen kutsatuta industria jardueraren eraginez. Arrasateren kasuan kutsatzaile izan daitezkeen 112 jarduera antzeman dituzte, 92 lur eremutan egin direnak. Herritarren batek nahi duenean lur horietan zer-bait egin, aurretik lur horien azterketa egin beharko du. Ingu-rugiro Sailaren zerrenda lagungarri izango du horretan.

“ Arrasatera 1994an iritsi ziren bi familia ijito portugaldarrek utzi egin behar izango dute Gipuzkoako herria ‘zorte hobearen bila’.

Alperrikakoak izan dira Arartekoaren bitartekaritza eta arrazakeriaren kontrako taldeen zein feministen salaketak: udalak ez du nahi izan pertsona hauek erroldan sartzerik eta horregatik, ezin izan dute ezelango gizarte laguntzarik jaso ahal izan.

Udalbatzaren bihozberatasun falta hainbestearino iritsi zen, non eragotzi egin baitzuen ebakuntza izan berri zuen emakumetarikoa bat bere onera itzul zedin udalak larrialdietarako dauzkan etxebizitza batean.

Formalismoetara jo ahal izango da, baina ez dago zuritzerik ezin zurituzkoak: lau heldu eta sei haur hauei Arrasaten eman zaien tratua latza bazterkeria lotsagarrienaren eta Jose Mari Loiti herriko alkatearen eta bere gobernu taldearen sentiberatasun faltaren adibide gisa geratuko da historian”.

EL CORREO
1999.3.11



KALE AGERRALDI UGARI

Ostiralean hiru kale agerraldi egin ziren herrian. Batetik, Pedro Mertxani elkartasuna adierazteko ostiralean egin zena. Bestetik, azken atxiloketen aurrean protesta egiteko, eguerdian ikasleak irten ziren kalera, IAK eta Jarraik deituta. Istiluak izan ziren Ertzaintzarekin. Iluntzean beste kale agerraldi bat izan zen HBK eta AABK deituta.

ZENTRU PSIKOPEDAGOGIKOA

- Diagnostika-Orientazioa.
- Laguntza terapia.
- Mota guztietako eskola arazoak.
- Peritaje judizialak.
- Psikomotrizitatea eta logopedia.
- Trataera txar fisiko edo psikikoak jasaten dituzten pertsonen laguntza psikologikoa.
- Ikasketa teknika eta ohiturak.

Ignazio Zuloaga kalea, 10 • Tel: 943 79 48 77 • ARRASATE

Lore
Lurrindegia

Olarte kalea, 10 • ARRASATE
Tel.: 943 79 52 50

OSORIK
PUB

Ignazio Zuloaga, 4
ARRASATE

Arkoren batzar nagusia

Arrasate Komunikabideak elkarteak —Arrasate Press eta ATB biltzen dituen— datorren martxoaren 23an egingo du urteroko batzar nagusia. Monterronen barik, hasieran iragarri zen moduan, Mondragon Hotelean izango da, arratsaldeko 19:00etan.

Iazko jardueraren txostena aurkeztuko da eta baita diru kontuak ere. 99rako egitasmoak eta aurrekontuak ere jakinaraziko dira.

Azken aldian Epe Luze-rako Plana lantzen ari da Arko; horren nondik norakoak zabalduko dira. Baita egun haue-tan EHUKo Soziologia Saila egiten ari den inkestaren berri ere. Inkestan Arrasate Press- ez eta ATBri buruz galdetu zaio jendeari. Batzar nagusiaren egunean, martxoaren 23an, ATBk bestelako programazioa eskainiko du. Arratsaldeko 19:30etan Jolasplast, haurren saioa. 20:00etan albiste laburpena. Korrikari eskainitako saioa 20:08etan eta Musiklasik, 20:40etan. Ondoren, errepikatu egingo dira albistegi laburpena, Korrika eta Musiklasik.

Erdiko kale

Udalaren Zerbitzu Tekniko-ek aurkeztutako txosten baten arabera, Erdiko Kaleko zenbait galtzadarri mugitu eta hondoratu egin dira. Dirudie-nez, harezko oinarri batez lotuta daude eta erabileraren poderioz askatuz joan da oinarria.

Hori dela eta, zorua konpontzen hasiko dira martxoaren 22a baino lehen. Hilabete-ko epean bukatuta egotea aurreikusi da gainera.


Construcciones Arrasate enpresak egingo ditu konpontzeta lanak, 700.000 peze-ta inguru erabiliz.

Euskara Batzordeak 50 milioi pta banatuko ditu

Joan den astean egin zuen bileran, Arrasateko Udalaren Gobernu Batzordeak onartu egin zuen Euskara Batzordearen proposamena, herriko euskara taldeen artean 50 milioi pta pasatxo banatzeko.

Zatirik handiena Arrasate Komunikabideak elkarteak eramango du: 31.600.000 pta. AED elkarteak, berriz, 7.377.000 pta jasoko ditu. Txatxilipurdik, ostera, 5.690.000 pta. Hauek guztiek lankidetzaz hitzarmenak dituzte udalarekin. Alkatetzatik adierazi zaigunez, maiatzaren erdirako sinatuta egon beharko lirateke aurtengo hitzarmenak, udal hauteskundeak egin aurretik, alegia.

AEK-Erdi euskaltegiak ere 4.305.000 pta jasoko ditu. Honen kasuan, gainera, lankidetzaz hitzarmen bat sinatzea



AED elkarteak 751.000 pezeta jasoko ditu Zahar Berri egitasmorako.

onartu zen. Lehenengo aldia izango litzateke Arrasateko Udalak eta Erdi euskaltegiak horrelako hitzarmena sinatzen dutela.

AEDk beste 751.000 pta jasoko ditu Zahar Berri programa aurrera eramateko. Euskalan taldeak, berriz, 408.000

pta jasoko ditu bere defizitari aurre egiteko.

Horrekin batera, Arrasateko Udalak kilometro bi erostea erabaki du, aurtengo Korrikarako. Beste 145.000 pta eman ditu Seaska, Herri Urrats eta Argia aldizkariaren artean banatzeko.

Kultura ondarea zaintzen

Arrasateko Udalak aurtien hiru toki zaharberritzea erabaki du: San Frantzisko komentua, Cerrajerako eraikin nagusia eta Leze-Txiki kobazuloko kanpo aldea. Honetarako diru laguntza eskatu dio Gipuzkoako Foru Aldundiari.

Izan ere, Gipuzkoako Foru Aldundiak probintzia honetako kultura ondarea zaharberritu, sendotu eta hedatzeko diru laguntzak ematea erabaki zuen urtarilean foru dekretu baten bitartez.

Moduhonetan, historia, arte, etnografia, arkeologia, zientzia, teknika edo kulturaren arloan duten garrantzia aintzat hartuz, interesa duten ondasunak zaharberritzen eta behar bezala zaintzen lagunduko da.



Aurtengo udan ere egingo dira auzolandegiak Leze-Txikin.

San Frantziskoko komentua- ren kasuan, eraikuntza osoa zaharberritu nahi da. Izan ere, komentua- ren egoera dela eta, eraikin osoa konpondu behar- rean dago.

Cerrajerako eraikin nagusi- an, berriz, soilik Musika Etxea egiteko eraibiliko den

solairua konponduko da.

Azkenik, Leze-Txikin, uda partean auzolandegiak antolatz- ea pentsatu du udalbatzak. Modu honetan, kobazuloko sarrera eta inguruak txukuntzea nahi da. Honetarako ere eska- tu zaio diru laguntza Foru Aldundiari.

Gimnasio berria Uribarrin

Uribarriko Gizarte Etxean gimnasio bat egingo da 1999a bukatu aurretik. Izan ere, hasiera-hasieratik pentsatu zen poliki-poliki Uribarriko Gizarte Etxean auzo horretarako zerbitzuak areagotzen joango zirela. Honetarako gizarte etxearen behe aldean dauden 200 m²ko bi lokal erosi ditu udalak. Bata gazte txoko bat egieko erabiliko da eta bestea gimnasioa egiteko. Halaxe adierazi digu Blanca Roncal, PSOEko zinegotziak.

Alberto Mendieta eta Edurne Goyache arkitektoak dira gazte txokoaren aurreproiektua egiten ari direnak. Orain gimnasioarena ere egingo dute. Ondoren, lanak adjudikatu eta orduan hasiko dira egiten.

Gimnasio berri honek beste edozein gimnasiok dituen zerbitzuen antzekoak izango ditu. Hala nola aerobica, mantentze gimnasia, hirugarren adinekoentzako, e.a. Guztira, 20 pertsona inguruko taldeentzako lekua izango da.

Irakasleak, berriz, AUKEA-ko jarriko ditu, elkarlanean arituko baitira gimnasio berria eta AUKEA.



14 eta 24 urte arteko gazteen %74ak euskaraz daki 1996.ko erroldaren arabera.

Euskara gero eta gehiago erabiltzen da Arrasaten

Hamaika urtean euskararen erabilera %17 igo da gure herrian. Halaxe adierazten dute behintzat Arrasateko Udaleko euskara zerbitzuak eta AEDren artean eginiko neurketek.

Siadecoren eta EKBren metodologia erabiliz, Uribaldi, Santamaina, San Andres. Musakola eta erdialdeko kaleetan zehar aritu dira euskararen erabilera neurtzen AEDko kideak. Jasotako datuen arabera, euskara gehien erabiltzen den herriko gunegusia erdialdea da. Gutxien era-

biltzen den tokia, aldiz, Santamaina auzoa da.

HAURRAK GEHIEN

Biztanle kopururaren %29 euskaraz bizi da Arrasaten. 1989. urtearekin konparatuz, bikoiztu baino gehiago egin da kopurua. Izan ere, orduan %12k soilik hitz egiten zuten euskaraz.

Oro har, haurrak dira euskaraz gehien aritzen direnak, 2-14 urte arteko neska-mutikoak batez ere. 1996. urteko erroldaren arabera, adin tartehorietako haurren %85ek euskaraz hitz egiten zuten. Ondo-

rioz, haurrak tartean dauden elkarrizketetan, euskararen erabilera izugarri igoen da. Kasu hauetan, hizlarien %50ek euskaraz egiten du. Era berean, orduko erroldaren arabera, 14 eta 24 urte arteko gazteen %74ek zekien euskaraz.

Aipatu beharra dago, ordea, zaharren kasuan, euskara erabiltzen duten pertsona nagusien kopurua 10 puntutan jaitsi dela urte hauetan.

Dena dela, oro har, euskararen osasuna geroz eta hobea da Arrasaten.

Ekin eta AED pozik

Urteko aurreneko hilabeteetan ohi denez, elkarteek pasatako urtea aztertu eta datorrena planifikatzeko batzar orokorrak egiten dituzte. Oraingoa, Ekin Emakume Taldearen eta AEDren txanda izan da.

Ekimen kasuan, joan den ostegunean egin zuten batzar nagusia. Iazko denboraldiari dagokionez, Rufina Olasa-

gasti, Ekineko presidentek, balorazio positiboa egin zuten. Jarduera ugari egin dituzte, halanola: hiriguneko ekimenak (eskulanak, dantza, orratz lan, liburu jostea, e. a.) eta auzogunekoak (Gesalibar eta Garagartzan, adibidez, eskulanak, yoga eta jakiak ontziratatu eta izozteko eman diren ikastaroak).

AED GERORA BEGIRA

Talde honen kasuan, atzo izan zuten batzar orokorra. 1998. urteari buruz, Jasone Mendizabalek, AEDko liberatuak, oso iritzi ona agertu zuten. Batez ere, 15. urteurrenaren ospakizun ekitaldiak nabarmendu zituen. Era berean, datorren urteari begira, Zahar Berri egitasmoa indartzeaz

gain, bi proiektu nagusi aurreikusi dituzte. Bata, Txatxilipurdirekin elkarlanean gazte sail berri baten eraketa; eta bestea, bost urtetik hona egingakoaren hausnarketa eta gerorako helburuak finkatzea. Honetarako bazkide guztientzat zabalik izango den mintegi bat egitea pentsatu dute AEDko kideek.

Nagusiak, langileak eta eskuzabalak



Aurten, Pertsona Nagusien Nazioarteko urtea dela eta, ICTek hainbat ekitaldi antolatu ditu Arrasaten eta inguruan. Horietako bat, Nagusilanen hitzaldia da. Hilaren 25ean Juan Mari Garitanok, Nagusilaneko presidentek talde honen aurkezpena egingo du Abaroan. Horrekin batera, Nagusilanen aritzeko arrasatear talde bat eratzeari lortu nahi da. Hori guztia eta gehiago kontatu digute gaurkoan Juan Mari Garitanok berak eta Nagusilanen borondatez lan egiten duen Jabier Aranguren aretxabaletarrak:

1995. urtean Nagusilan jaio zen Donostian. Euskal Herrian pertsona ezinduek zaintzen aritzen den elkarte dugu berau. 250 pertsona pasatxok egiten dute lan. Bere ezaugarriak nagusia da guztiak borondatezkoak eta pertsona nagusiak direla.

Orain, Gizpuzkoa, Bizkaia eta Arabako hamaika herritan egiten dute lan. Dena dela, gero eta herri gehiagotara hedatzeko asmoa dute.

GUZTIA BORONDATEZ

Arestian esan bezala, pertsona nagusiak aritzen dira Nagusilanen. Bakoitzak nahi duen denbora ematen du eta nahi duen ekintzetan lagun dezake.

Honela bada, gazte ezinduek zaintzen dituzte haren gurasoek atsedean har dezaten; pertsona nagusiak alfabetatzen dituzte edo espetxeetan daudenak bisitatu; bakarrik

bizi diren pertsona nagusien etxeetara ere joaten dira haiei laguntasuna emateko. Hori bai, "jeneralean gizarte laguntzaileek hala eskatuta zaharren egoitzetara joaten gara eta han bakarrik dauden edo bere burua bakarrik ikusten duten nagusiei laguntzen diegu.

"Eurekin hitz egin, kartzetan jokatu, jendea animatu eta honelakoak egiten dira. Adibidez, zaharren egoitza askotan, astero taldekako elkarriketak antolatzen ditugu. Aspaldiko kontu zaharrak gogoratuz eta antzekoak eginez".

EMAITZA ONAK

Orain arte, lortutako emaitzak onak izan dira. Jabier Aranguren bere esperientzia kontatu digu. Aretxabaletako erretiratua dugu Jabier. Orain momentuan egunero-egunero ia ordubeteko bidaia egiten du autobusez Errezilgo nagusi batengana joateko. Hasieran pertsona hau ez zen etxetik ere irteten. Haren alaba Nagusilanera joan eta laguntza eskatu zien. Ondorioz, Jabier harengana joaten hasi zen eta harrezkero kalea irteten da. "Hasieran 100 metro bakarrik ibiltzen zen, baina gero eta ibilaldi luzeagoak egiten ditugu. Oso pozgarria da gainera. Izan ere, zerbaitetan lagundu duzula ikusteak asko pozten zaitu eta pertsona nagusiak oso esker onekoak dira. Oso gustura nabil lan honetan". Jabierrek Aretxabaletako zaharren egoitzan ere egiten du lan. Astean behin bertara joan eta

jendearekin hitz egiten egiten da. "Jeneralean kontuak entzuten egoten naiz. Pertsona nagusiek kanpoko informazio nahikoa jasotzen dute, baina oso gutxitan daukate euren gauzei buruz berba egiteko aukera. Oso jende gutxi dago pertsona nagusiei entzuteko prest".

ORAIN ARRASATEN

Nagusilan hedatzeko asmoen barruan, Arrasate azaltzen da argi eta garbi. Datorren martxoaren 25eko hitzaldia ostean, Arrasaten taldea

eratzten saiatuko dira. Honek balitz, udazken aldera, hasierako ikastaroak ematen hasiko dira. Borondatezko izatearen nondik norakoak argitu, laguntzen zaion pertsonaren behar psikologiko emozionalak zeintzuk diren aipatu, pertsona horri nola entzun eta nola hitz egin eta antzeko gaiak lantzen dira mota honetako ikastaroetan.

Beraz, hortxe dago deia eta hortxe zeregina. Edozertan lagundu nahi duenak atek zabalik ditu Nagusilanen.



Garitano eta Aranguren gurekin izan ziren Nagusilanen berri emanez.

Orain arteko hazkunde ereduari lotuko zaio Euskadiko Kutxa

1998 urte bikaina izan zen Euskadiko Kutxako arduraduentzat. Konpetentziako bankuek baino merkatu kuota handiagoa irabazi zuen. Eraginkortasunari dagokionez ere, Euskadiko Kutxak hobetu egin zuen aurreko urteko maila. Enpresen finantziazioa ere igo egin zen. Ia 7.000 milioi pta eman zituen enplegua sortu eta kooperatibak garatzeko. Horren ondorioz, ia 8.000 langile gehiago sartu ziren korporazioan.

Europako Batasunaren itzalean han-hemenka egiten ari diren bategiteak direla eta (tartean EAEn BBK-k, Kutxak eta Vital Kutxak egingo dutena eta Nafarroan Iruñekoak eta Nafarroakoak egiteko direna), lasai daude Euskadiko Kutxako arduradunak. Ahal badute, inoren bategiteetatik etekina ateratzen saiatuko dira, orain arte bezala. Bestetik, orain arte hain mozkin onak eman dizkien hazkunde ereduari lotuko zaizkio.

Bide horretatik, iaz hamahiru bulego ireki zituen Arrasateko finantza erakundeak. Horietatik bederatzita Hego Euskal Herriatik kanpo:



Juan Mari Otegi eta Juan Jose Arrieta.

bost Valladoliden, bi Burgosen eta bi Errioxan. Urte bukeran 232 bulego zituen Hego Euskal Herrian eta 24 kanpoan. Datozen urteetan ere zabal-kundea Gaztela-Leon herrialdean egingo da bereziki. Euskadiko Kutxaren plan estrategikoak ezarria du bere negozioaren %15 Hego Euskal Herriaren mugetatik kanpo egitea. Hori lortzeko, urtean hamar bat bulego irekiko dira, Gaztela eta Errioxa artean batik bat.

Euskadiko Kutxan bertan 91 lanpostu berri sortu ziren.

Horietatik 41 lan bazkide egin ziren eta 54 datozen hilabeteetan egitekotan dira. Euroa dela eta, 1.200 milioi pta inbertitu ditu eurotan eta pezetatan lan egiten duen kontularitza lanean jartzeko. Horretan ere, nabarmendu egin zuten erakundeak egoera berri eta aldatzeko erakutsi duen ahalmena.

MCC

MCCk ere mugari esanguratsua gaituko du 1999an. Antonio Cancelok adierazi due-

nez, korporazioaren salmentak bilioi bat pezetatik gorakoak izango dira aurten. Diru kopuru horren ia erdia esportazioei esker lortuko da, gainera. Kontuan izan 98koak 885.000 milioioak izan zirela.

Inbertsioetan ere jauzi ederra emango du: iaz 70.000 milioi pta.koak izan ziren. Aurtengoak, oster, 90.000 milioioak izango dira. Diru honi esker, 3.000 lanpostu berri sortuko dira. 99aren bukaeran MCCk 45.000 langile izango ditu.



LASAGABASTER-en

AUKERARIK ONENA



DOCKERS®
pants by
Levi Strauss & Co.

Zerkaosteta, 1 eta 2 • ARRASATE • Tel.: 943 79 27 27 / 943 79 13 55



ARKOREN MISTERIOA

Badirudi jendearentzat aldizkari eta telebista bat nola egiten den ikustea misterio erakargarria dela. Azkenaldion behintzat bisita ugari izan ditugu. Argazkikoak, Aramaioko eskolako 6-7 urteko neska-mutikoak eta Oñatiko barnetegiko ikasleak dira.



X. Elgezabal

MIKEL IRIZARREN TXOKOA

Habe aldizkariaren azken aleak orrialde bat eskaini dio Mikel Irizarren txokoari. ATBko eta ETBko aurkezlea Elorrioko Gazeta auzoko baserri batean bizi da, Udalatx eta Anbotori begira. *A capricho* jarria omen dute.


OROIMENA LANBIDE

San Viator Ikastolako neska-mutikoak harri eta zur geratu ziren Jaime Garcia Serrano matematikari kolonbiarrak izenak gogoratzeko eta zerbakiak menderatzeko duen trebetasuna ikusita. Kalkulagailua ez baina abakoa zuen lagun Jaime Garcia Serranok.



ROBER JAMEN!

Extremoduro rock taldeak joan den aste osoa egin zuen Bergarako Jam aretoan entseiatzen, laster hasiko duen birarako. Ostiralean 300 lagunentzako kontzertua eskaini zuen. Gu tartean!



IZENAK

Itxaro Zubillaga

ATBko Mondrasporteko aurkezlea orain "Lo Que Faltaba" saioan ere arituko da. "Hamaika Korapilon" ibili da orain arte, bukatu den arte. Berehala deitu diote, ordea, ETB2ko saio honetarako. Zerbaitegatik izango da. Zorionak Itxaro!



Isabel Gallastegi

Eusko Alkartasunako Arrasateko Udaleko zinegotzia izateaz gain, duela gutxitik, Eusko Legebiltzarrean dabil lanean. Mahaiko bigarren idazkariaren idazkaria da bera.



AUPA TAU!

Joan den ostegunean sekulako bisita izan zuten saskibaloizaleek. DV egunkariak gonbidatuta, Scariolok zuzentzen duen Tau Ceramica talde osoa izan zen eta Iturripen. Umeen eta ez hain umeen gozamenerako entrenamendua hantxe egin zuten. Bide batez Scariolo lanean ere harrapatu genuen!





JAKINMINA

1960ko 40 soldadugai elkartu ziren larunbatean Hostal Musakolan bazkaltzeko. Meza entzun eta txikiteoa egin eta gero "Jainkoak nahi duena" egin behar omen zuten. Honelakoetan argazia bazkaria baino lehenago ateratzeko esaten digute gehienetan. Zergatik ote?

GAZTE KEMENTSUAK

Roberto eta Mikel de la Torre Euskadiko Rally txapelketan daude. Otsailaren 28an Gabiria-Legazpia rallyan korritu eta, autoaren muturrean kolpe eder bat hartu ostean berpiztu eta hirugarren gelditu ziren. Bi "supermutil" hauek Musakolako Gazte Txokoa ibilitakoak dira eta orain hantxe dabilen ania gazteenak ekarri digu argazia. Aurrera mutilak!





Hamaika aldiz Euskal H

Bihar bertan, martxoak 19 eta San Josef eguna, Iruñetik abiatuko da Korrika 11. Arratsaldeko 16:00etan aterako da eta, horregatik, beste urtetan baino km. gehiago izango ditu: 2.250 km., hain zuzen ere. Bederatzi egunetan Euskal Herri osoa zeharkatuko du "Bat eta bat hamaika, zu eta ni euskaraz" leloa zabalduz, Donostiara iritsi aurretik. Hori martxoaren 28an izango da. Baina tartean Arrasatera ere iritsiko da. Gaez izango da aurten, beraz adi-adi egon beharko gara.

Goizeko 04:00ak aldera aurreikusitako Korrika 11ko antolatzaileek Arrasatera iritea. Ez da gehienok nahiko genukeen ordua, baina ze demontre: euskarak merezi du! Gainera Arrasateko Erdu-AEK-k eta Larraitz Trojaola, Deba Garaiko Korrikaren koordinatzaileak dena prest dute jendeak lo har ez dezan.

Egun osoan ekitaldi bereziak antolatu dituzte eta gau partean, afari festa ere egingo da.

Larraitzek kontatu digunez, "lan ikaragarria da; hori dela eta, lehenbailehen hasi behar izaten da dena prestatzen. Gainera, Korrika datorrela girotzeko, Korrika Kul-

turala ere egin dugu eta horren barruan hainbat ekitaldi izan dira herrian".

KORRIKA KULTURALA

Otsailaren 14tik martxoaren 14a arte burutu da Arrasaten Korrika Kulturala. Horren barruan lehenengo ekitaldia Benito Lertxundiren kontzertua izan zen. Otsailaren 20an, benitozale mordoxka elkartu zen Amaia antzokian musikari oriotarraren doinuaren erritmoekin gozatzeko.

Sagardo garaia dela eta, irteera ere antolatu zuten sagardotegira. Hori otsailaren 26an izan zen. Martxoaren 6an, berriz, eta emakume langileen eguneko ospakizunaren barruan, beste kontzertu erraldoi bat antolatu zuten, oraingoan Musakolako kiroldegian. Emanaldiko abeslari-guztiak neskak izan ziren arrazoi horregatik: Anari, Labrit Zabala, Dantzut, Zea Mays, Kashbad eta 2Kate.

KILOMETROZ KILOMETRO

Larraitz Trojaolak dioskunez, "km.en salmenta gutun bidez egin dugu. Aurten 54 ikastetxe, elkarte eta alderdi politikori banatu zaie km.a erosteko eskaintza. Orain dela bi urte, 27 erosle izan ziren Arrasaten". Eta nola banatzen dira Arrasateri tokatzen zaizkion 8



Egitaraua

Korrika Arrasatetik pasatzen den eguneko egitaraua: martxoak 24

- 15:00etatik 16:00etara Korrika Txikia. Musakolan hasi eta plazan aurrera.
- 17:30etatik 19:00etara, Trikimailu Express, umeentzako kale antzokia herriko plazan.
- 19:00etan erraldoiak eta buruhandiak
- 20:00etan, herri txikiteoa, trikitilariekin
- 20:30etan eta 21:00etan, Korrikako bideo emanaldia, herriko taberna
- 21:30etan, trikitilarien kalejira, Kataide jatetxeraino
- 22:00etatik aurrera, afari festa Kataiden
- Afaloste, kankak, dantza eta berotze ariketak
- 04:00etan Korrikari ongi etorria San Isidron
- Korrikaren otea txokolatada Sebero Altuben.

Luis, Txispas eta Patxi Korrika osoa egin duten hamar mondragoetarik hiru ditugu. 1989an 11. Korrikak egingo duen ibilbidea egin zutenarekin gogoratzen dute orduko korrika haietatik:

- Hirugarren Korrikan estreinatu ginen.
- Garaiko arazoak izan genituen, batez ere muga zeharkatzeko. Dantza an atxilotuta ere izan ginen.
- Denetarik ikusiak gara: Erriberako herrietan goardia zibilek gurekateratzen egiten zuten Korrika, herrian inor ez zela egongo eta lasterketa zehatzen genuela ikusita, Lemoiz gune militarra zenean korrika "erreleboan genduzela" edo ulertu ziguten eta herria zeharkatzea lortu genuen.
- Lekuko bi eramaten dira badaezpada. Dena den, behin baino ez galdatu. Baina sustoak izan ditugu.
- Ibilbidea ere aldatu izan dute herrietan, lekuko eraman behar zirenen amak ikusteko edo antzerako arrazoirengatik.
- Tronkomobila, Papamobila eta gero Zapatila arina eraman genuen.
- Ardanza Arrasaten, Gorordo Bilbon, Velez de Mendizabal Gasteizen, Villasantan, Mikel Zabalaren ama, Aita Barandiaran...
- Arrasate izan da Korrika gelditu den leku bakarra. Arregi alkate zela baimen bat ez zuen eman Udalak eta protesta modura Korrika minutu 12 gelditu zen.
- Umeak ikustea ikaragarria da leku guztietan. Hainbat ume km.ak ematen egin dituzte eta gero nola itzultzen ziren ez dugu inoiz jakin.





Herrian euskaraz

Bat eta bat hamaika, zu eta ni euskaraz

Errepideetako marrak dira hamaika bateko, hamaikak bat egiten dute urrunago joateko.

Batekoak beti batuz, Korrika goaz gure bidea gertatuz, Pauso bakoitzeko hitz bat Asfaltoan txertatuz.

*Ni eta zu, zu eta ni
Bat eta bat bi gara, bi.
Goazen Korrika
Marrari segika!
Bat eta bat hamaika
Zu eta ni euskaraz*

Errepideetako marrak dira hamaika bateko, hamaikak bat egiten dute urrunago joateko.

*Marrak luze-beteen,
Aurrera-atzera-haruntz-honutz
joatean,
Hamaika herri lotu ditu
Korapilo batean.*

*Ni eta zu, zu eta ni
Bat eta bat bi gara, bi.
Goazen Korrika,
Marrari segika!
Bat eta bat hamaika
Zu eta ni euskaraz*

Hitza: **Maialen Lujanbio**
Musika: **Iñigo Muguruza**
Korrika 11 band: **Joxe Ripiau, Txatunga Benbe, Alain Michelle (King Mafrundi), Skandalu eta Maialen Lujanbio.**

km.ak horrenbeste erosleren artean? "Jeneralean km.ak erdi-bana eta horrela erosten dituzte. Azkenengo Korrikan, esaterako, 500 metro egin zituzten lekukoak ere egon ziren". Km bakoitzak 40.000 pta. balio du. Hori dela eta, talde askok banaka baino nahiago izaten dute gastua banatzea.

IBILBIDEA

Bailarako bederatzi herrietatik pasako da Korrika 11.a. Aurten Elgeta eta Aramaio kanpo gelditu dira. Arrasatera Oñati aldetik iritsiko da, esan bezala goizeko 04:00ak aldera eta gero Aretxabaleta, Eskoriatza eta Arlabandik zehar Gasteiza joko du.

KORRIKA TXIKIA

Ikastetxeetako neska-mutikoei ere egin dute euren Korrika. Arratsaldean izango da eta herriko ikastetxe guztiek herriko kaleak zeharkatuko dituzte, lekukoa elkarri emanez. Lehenengoak Musakolako herri eskolakoak izango dira. Hauek La Merced ikastetxe-ko neska-mutikoei emango diete lekukoa Gelma parean. Hirugarrenak, San Frantzizko Xabierrekoak izango dira. Hauek Monterronen hartuko dute eta Udalako plazaraino iritsiko dira Erguin herri eskolako haurrei emateko. Udala-

rik Uribera joko dute, Jokin Zaitegiko neska-mutikoei lekukoa hartuko dutelarik. Hauek Bolintxora eramango dute San Andres herri eskolako emateko eta San Andresekoek San Viator Txikikoei emango diete Arrasate pasealekuan, herriko plazara eramanez.

AURTENGO OMENDUAK

Hauxe da Korrika 11ren berri-tasunetako bat. Hau da, omenduk bat izan beharrean, hamaika direla. Arlo ezberdinetako pertsonak eta taldeak hautatu dituzte. Zientzia arloan, Pedro Migel Etxenike zientzilaria hautatu dute; unibertsitate arloan, Jose Ramon Etxebarria irakaslea; kirolean, Jose Angel Iribar, Athletic taldeko atezain ohia; lan arloan, Etxepe enpresa eta Mendia Optika, biak ere Gasteizkoak; irakaskuntzan, Laudio ikastola sortu zuen taldea eta Argiñe Iturregi, Sestaoko Kueto eskolako langilea; komunikabideei dagokienez, Euskal Herria Irratiko kideak omenduko dituzte; udalerrien artean Arantzakoa hautatu dute eta kultura taldeen artean, Maiatz taldea, Ipar Euskal Herriko literaturaren adibide garbia. ■

Marijo Deogracias





Zeinen errua izan zen?

KKJauri eta Koka Juniors taldeak sarritxo agertzen ari dira gure asteroko argazkian. Asteburu honetan ere bi talde hauek jokatu zuten partidaren ginen. Oraingoan, ordea, atezainarekin sartu beharrean, jokalariei begiratu genien. Izan ere, KKJauriko jokalaria zen bat etorri epailearekin. Egia esan, guk ez dakigu zer gertatu zen, baina gomendio bat: kiroltasuna izan dadila nagusi!

Laburrak

■ ZIGORRAK BARRA-BARRA

Bigarren aldia ez dute bat ere ondo hasi Zaldibar txapelketako jokalariek. Saillkapenarekin gustura ez ote daude? Ez dakigu horrek eraginik izan duen lehen jardunaldi honetan gertatu dena gertatzeko.

Kontuak kontu, badirudi epaileak eta jokalariek ez datozela bat eta asteburu honetan horixe erakutsi dute. Hiru jokalarik zigortzea erabaki dute,

epaileak iraintzeagatik. Zigor-tutako jokalariek hauetxe dira: Totem taldeko Pablo Ribiere, Insert Coin taldeko Mario Hernandez eta KKJauri taldeko Xabier Garcia (argazkikoa).

Hiru jokalarik hauek partidabateko zigorra daukate, beraz asteburu honetan ezingo diote euren taldeari lagundu.

Beraz, badakizue. Epaileekin adi! Irain bakoitzeko, partida bat gutxiago.

■ TALDEEN ARDURAK ZAINDU

Zaldibarko futbito txapelketako araudiaren arabera, talde guztiek dute jardunaldiaren amaieran sareak jasotzeko ardura.

Asteburu honetan Insert Coin eta Totem taldeek ez zuten horrelakorik egin. Hori dela eta, antolakuntzak abixua eman die. Berriz horrelakorik gertatuz gero, kalera joango dira.

■ ORDUTEGI BEREZIA

San Josef zubia dela eta, ordutegi berezia izango da Zaldibarren.

Ostirala jai dela aprobetxatuz, hainbat partida ostiralean jokatu dira. Goizeko 11:00etan hasiko dira, gainera. Larunbatean ere, beste horrenbeste egingo da. Igan-dean, beraz, jai izango dute taldeek. Adi larunbat gauean kalera ateratzeko ohitura duzenok!

TOLDOS LECE C/B

Kataide Industrialdea, 14
Musakola • ARRASATE
Tel.: 943 79 23 83
Faxa: 943 77 04 45

Eguzkiari aurre egiten diogu inork baino hobeto

TXOKO TABERNA

Gure berezitasunak pintxo eta mokau gozoak

LOGOPEDIA ZENTRUA ARRASATE

Logopedia eta psikologia tratamendu kliniko eta hezitzaileak haur eta helduentzako.

Erdiko kale, 37 - behea
Tel.: 943 79 79 46 • ARRASATE


Sailkapenak

A taldea	PARTIDUAK				GOLAK		PUNT.
	Jokat.	Irabaz.	Berd.	Gald.	Aide	Aurk.	Guzt.
Komando Alpargat	1	1	0	0	5	1	2
Dribling	1	1	0	0	4	2	2
Aita Menni 2010	1	0	1	0	2	2	1
Jotakabau	1	0	1	0	2	2	1
Txantxiku Kirolak	1	0	1	0	5	5	1
Branka Taberna	1	0	1	0	5	5	1
Leya	1	0	0	1	2	4	0
Irati STS	1	0	0	1	1	5	0

B taldea	PARTIDUAK				GOLAK		PUNT.
	Jokat.	Irabaz.	Berd.	Gald.	Aide	Aurk.	Guzt.
Aldibi	1	1	0	0	7	1	2
Garaje Oskar	1	1	0	0	4	2	2
Potroak	1	1	0	0	2	1	2
KKJauri	1	1	0	0	5	4	2
Koka Juniors	1	0	0	1	4	5	0
Fragel Gol	1	0	0	1	1	2	0
DKB	1	0	0	1	2	4	0
You Know	1	0	0	1	1	7	0

D taldea	PARTIDUAK				GOLAK		PUNT.
	Jokat.	Irabaz.	Berd.	Gald.	Aide	Aurk.	Guzt.
AC Surkos	1	1	0	0	10	4	2
Lontxo Taberna	1	1	0	0	9	4	2
Pepelus	1	1	0	0	7	5	2
Aurrera Bolie	1	0	1	0	5	5	1
Diego Antonio	1	0	1	0	5	5	1
Xhasss Ugarte	1	0	0	1	5	7	0
AT Celaya	1	0	0	1	4	9	0
Kamasutra	1	0	0	1	4	10	0

E taldea	PARTIDUAK				GOLAK		PUNT.
	Jokat.	Irabaz.	Berd.	Gald.	Aide	Aurk.	Guzt.
Orlando Piratas	1	1	0	0	9	2	2
Naranja Mecanica	1	1	0	0	11	4	2
EPEH	1	1	0	0	4	3	2
Totem	1	0	1	0	5	5	1
Insert Coin	1	0	0	1	3	4	1
Sokoakoak	1	0	0	1	3	4	0
Ke Oxtias	1	0	0	1	4	11	0
Saukelu Scream	1	0	0	1	2	9	0



Emaitzak

A taldea

Txantxiku Kir. 5 - Branka Tab. 5
Irati STS 1 - Komando Alpargat 5
Dribling 4 - Leya 2
Jotakabau 2 - Aita Menni 2010 2

B taldea

You Know 1 - Aldibi 7
Potroak 2 - Fraguel Gol 1
KKJauri 5 - Koka Juniors 4
Garaje Oscar 4 - DKB 2

D taldea

AC Surkos 10 - Kamasutra 4
Lontxo Taberna 9 - AT Celaya 4
Xhasss Ugarte 5 - Pepelus 7
Aurrera Bolie 5 - Diego Antonio 5

E taldea

Orlando Pir. 9 - Saukelu 2
Naranja Mec. 11 - Ke Oxtias!!! 4
EPEH 4 - Sokoakoak 3
Totem 5 - Insert Coin 5

Hurrengo partidak

2.aldia
2. jardunaldia

Martxoak 19, Ostirala
Zaldibar

10:50 Insert Coin - Ke Oxtias!!!
12:00 Txantxiku Kirolak - Dribling
13:00 Lontxo Taberna - Aurrera Bolie
14:00 Koka Juniors - Aldibi
15:00 Leya - Branka Taberna
16:00 Irati STS - Jotakabau
17:00 Naranja Mecanica - Totem
18:00 Sokoakoak - Saukelu Scream

Martxoak 20, Larunbata
Zaldibar

10:50 Aita Menni - Koma. Alpargat
12:00 You Know - KKJauri
13:00 AC Surkos - Xhasss ugarte
14:00 Diego Antonio - AT Celaya
15:00 Potroak - Garaje Oscar
16:00 Pepelus - Kamasutra
17:00 Orlando Piratas - EPEH
18:00 DKB - Fraguel Gol

Iruzkina

Lehen jardunaldiko emaitzak

Bigarren aldiko lehen jardunaldia jokatu zen joan den asteburuan eta emaitzei dagokienez, batzuk aipagarriak dira. Izan ere, Komando Alpargat taldeak sekulako jipoia eman zion Irati STS taldeari. 5 eta 1, Komandoren alde.

Multzo berean, hau da, A taldean, Txantxiku Kirolak "ahalguztidunak" ezin izan zuen Branka Taberna mendean hartu. Berdinketarekin konformatu behar izan zuten txantxikuarrek oraingoan.

B taldean, badirudi bigarren aldiaren hasierarekin Aldibi txapeliduna zuzpertz dela eta irabazi egin zion You Know taldeari. Zazpi gol sartu zizkion You Knowri. Hauek galtzen duten lehen norgehiagoka izan zen, gainera.

D taldean, sorpresa gutxi. Espero bezala, AC Surkos eta Lontxo Tabernak erraztasun osoz gailendu zituzten aurkariak.

Azkenik, E taldean gauza bera esan beharra dugu. Izan ere, Orlando Piratas eta Naranja Mecanica taldeak jaun eta jabe egin ziren eta.



Pavimentos AGR
ARROZTEGIA

Mota guztietako zoruak • Lijatu eta barnizatuak • Erradapiak • Leioak • Ateak
Eskailerak • Armairu enpotratuak eta abar
MATERIALEN SALMENTA

Erakusketa eta biltegia:
Kale Txiki, 3 - behea • ARRASATE
Tel.: 943 77 11 20 • Faxa: 943 77 11 20

IRATI TABERNA

Ferrerias kalea • Tel.: 943 79 56 11
ARRASATE

Arrasateko Gimnasia Erritmiko
taldeko kidea

MAITE OTXANDIANO

**“Oso zaila iruditzen zait,
baina hasi baino ez dut egin”**

— **Noiz hasi zinen gimnasia egiten?**

— Bost urterekin hasi nintzen. Gaur egun hamar ditut.

— **Nolatan ekin zenion kirol honi?**

— Nire amaren bitartez. Berak, Arantzazu Zubia, nire entrenatzailea ezagutzen zuela eta, entrenamendu batera eramanez ninduen.

— **Zein estilo duzu gustukoena?**

— Oraindik esku librean aritzen gara, baina jadanik hasi naiz sokarekin. Oso zaila dela iruditzen zait, baina hasi baino ez dut egin.

— **Sokaz gain, zerekin aritzea gustatuko litzazuke?**

— Pilota ere gustatzen zait, baita zinta ere, baina oso zaila da.

— **Zein da ariketarik zailena?**


— Spagat egitea. Dena dela, berotu eta gero ez da horrenbeste kostatzen.

— **Iturripen ez baina bestelako erakustaldietan aritu zara?**

— Bai, orain dela bi aste Soraluzen izan nintzen eta maiatza edo apirilaren amaieran Iturripen arituko naiz.

— **Noiz entrenatzen duzue?**

— Egunero ditugu saioak Institutuko gimnasioan. Arratsaldeko 17:30etatik 18:30etara aritzen gara. Erakustaldiren bat daukagunean, ordea, ordu gehiago egiten dugu entrenatzen.



TXIRRINDULARITZA Denboraldi hasiera



Joan den asteburuan lehen urteko kadeteak Azpeitian izan ziren. Lasterketa hasieran batzuek ihes egin zuten, tartean Raul Blazquez, JMAko txirrindularia. Helmugarako 500 m. falta zirela, erori egin zen. 23. tokian iritsi zen.

JMAko Endika Martin ere erori egin zen eta anbulantzian eraman behar izan zuten, baina zauriak ez omen ziren izan oso larriak. Aste honetan, Abascal Oroitzpenezkoan arituko dira.

Beasainen izan ziren bigarren urteko kadeteak. Garaipeña, esprintean, Jurgi Altuna, Andoain taldeko txirrindulariarentzat izan zen. JMA taldetik Danel Lazkano izan zen han. Lazkaora joango dira asteburu honetan.

Afizionatu mailako Born Jay taldeko txirrindulariak Lasarteko klasikoan izan ziren igandean. Garaipeña Eric Pascal Iparraldeko txirrindulariak eskuratu zuen. Born Jayko lehena Oskar Askasibar elgetarra izan zen. Mendizabal erori egin zen.

SASKIBALOIA Orion, ezin



Senior mailako saskibaloitaldeak galdu egin zuen asteburuan Quiser Orioren aurka. Sailkapeneko azken tokian daude oriotarrak, baina hori ez zen oztopo izan mondragotarrak mendean hartzeko. Igoera aldiko laugarren jardunaldia zen eta oriotarrak izan ziren nagusi lehen eta bigarren zatian. Azken emaitza 77 eta 62.

Larunbat honetan Leioa-


ren aurka arituko dira, Iturripen, 19:15etan.

ESKUBALOIA Ezin eta ezin



Ohitura bihurtzen ari da, baina horrela da. Senior mailako Arrasate eskubaloitaldeak berriz ere galdu zuen joan den asteburuan. Gainera, tartea ikaragarria izan zen. 34 eta 16, Usurbilen alde. Usurbildarrek kontraerasoan jokatu zuten partida osoan zehar eta mondragotarrak ez zuten aukerarik izan. Usurbilgoak sailkapeneko bigarrenak direla erakutsi zieten mondragotarrei. Igandean Zestoaren aurka arituko dira Iturripen, 11:30etan.

FUTBOLA Behingoan berdinketa



Nesken futbol taldeak aspaldian lortu duen emaitzarik onena eskuratu zuen joan den asteburuan Azpeitiko Lagun Onak taldearen aurka. Banako berdinketarekin itzuli ziren Esti Loitiren neskek. Estirenak azkenak dira lehen mailako nesken sailkapenean. Asteburu honetan Anaitasunaren bisita izango dute Atxabalpen.

Preferente mailako Mondra taldekoak erakusten ari dira ezin dutela lortu bi emaitza on segidan. Aste honetan galdu egin dute Oiartzunen, 2 eta 1. Sailkapenean toki bat beherago daude Letonarenak. Martxa honetan egoera zail hau ezin bideratuta aurkituko dira. Ostiralean jokatu dute Pasaiaren aurka. Pasaitarrak ere ez daude sailkapenean oso ondo, beraz agian, garaipeña lor lezakete mondragotarrek.



Euriak eroriko ugari eragin zituen.

V udaberri sari nagusia jokatu zen

Larunbatean Arrasateko V udaberri sari nagusia jokatu zen eta Tradipa taldeko Arkaitz Rotetak irabazi zuen.

71 txirrindularik eman zuten izena Garibai kalean atera zen lasterketan parte hartzeko. Eguraldiak ez zuen lagundu, baina Elgeta gaine-

tik pasa ziren arte, ihesaldiak etengabe egin ziren. Elgeta gainean 25 txirrindularietako talde batek ihes egin zuen. Horietxek jokatu zuten esprinta.

Eguraldi txarrak jende askoren erorketa eragin zuen eta baita txirrindulari askok lasterketa lagatzea ere. Fagor

taldeko sei txirrindularietatik erdiek ez zuten lasterketa amaitu. Dena dela, gazte mailako denboraldiko bigarren lasterketa zen. Beraz, imajina dezakegu oraindik sasoi hartzen ari direla. Aste honetan Azpetitian izango dute hirugarren lasterketa.

Gimnasia erritmikoko erakustaldia

Alebin mailako gimnasten arteko gimnasia erritmikoko erakustaldia egin zen joan den asteburuan Iturripen. Arantzazu Zubiak entrenatzen dituen bederatzigimnastak (Olatz Undagoitia, Leire Alonso, Maitane Garrido, Amaia Alves, Mireia Rodriguez, Leire Poyato, Amaia Sanchez, Jone Goikolea eta Ainhoa Apaolaza) ere han izan ziren.

Eibar, Soraluze, Bergara, Elgoibar eta Azkoitiko gimnastekin batera aritu ziren mondragoetarrak.

Guztiak esku librean estiloan aritu ziren. Larunbateko prestaketa bezala balio izan zuen apirilean Arrasaten jokatuko den txapelketarako.



Laster izango dute Iturripen beste erakustaldi bat.

Denboraldiaren amaiera

Dagoeneko amaitu du denboraldia senior mailako errugbi taldeak. Joan den laurunbatean eskualdeko derbiarekin eman zioten amaiera 98-99 denboraldiari. Eta ez zuten gaizki egin Patxi Gorosabelen mutilek. Izan ere, irabazi egin zuten elorriotarren aurka. Lehen zatian 5 eta 12 aurreratu ziren mondragoetarrak. Bigarren zatian 5 eta 17ko markagailua lortu zuten. Baina partida amaitu aurretik, elorriotarrek tarte txikitzea lortu zuten eta 17 eta 20 amaitu zen norgehiagoka.

Jokoa ez zen garbia izan. Epaileak ez zuen ezer ikusten eta jokalariek nahi izan zuten egiten zuten. Joko nahiko gogorra ikusi zen, beraz Eloorrion.

Dena dela, mondragoetarrak bigarren sailkatu dira eta orain, kopa jokatze gogorik duten ikusi behar.

Xakelariak Gasteizen

San Andres Xake taldeko lau xakelari Gasteizko irekia jokatzen ari dira: Josu Tornay, Txema Hernando, Jabier Axpe eta Juan Carlos Mayo.

Jokalariak talde buruen arabera sailkatuta daude. Bost partida jokatu dituzte eta asteburu honetan amaituko dute, bi partida jokatuz.

Orain arteko sailkapena honako hau da mondragoetarren artean: Hernadok 3,5 puntu, Tornayk 3, Axpek 2 eta Mayok 2,5.

Txema Hernando da txapelketan ondoen ari dena. Gainera, Josetxu Knör Arabako jokalaria ezaguna ere gaudituzuen. Josu Tornay, bestalde, nahiko txapelketa gorabeheratsua egiten ari da.

JESUS SASIAIN (HARRERA FAMILIAKO KIDEA)

“Honelako haurren kezka nagus

Jesus Sasiain arrasatearrak 51 urte ditu eta Oñatin bizi da. Oñatiko Larraña Institutuko irakaslea da. Duela sei urte bi haur hartu zituen etxean, zehaztu gabeko denboraldi baterako: Sandra eta Julen. Gipuzkoako Foru Aldundiko “Gizartekintza” izeneko ekimen bati esker, haur hauek familia berri bat daukate. Hori bai, noizbait euren jatorrizko familiaren arazoak konponduz gero, beraien gurasoen etxera itzuli beharko lirarteke. Harrera familiek ez dute inolako eskubiderik haur horiengan, Foru Aldundiaren babespean daude.

— Zerk bultzatu zintuen bi haur hartzea?

— Egia esan, gu adoptatzeko asmoarekin joan ginen Donostiara 1993ko iraileko egun hartan. Baina adoptatzeko oso epe luzeak itxaron behar izaten dira. Ez zen erraza. Orduan, han geundela, harreraren beste aukera hau esplikatu ziguten, zeharo konbentzitu gintuzten eta orduan erabaki genuen Sandra eta Julen hartzea.

— Nola “aukeratzen” dira haurrak?

— Orain ez dakit nola egingo den. Orduan dozena erdi inguru bilera izan genituen aldundiko arduradun batekin, gure nortasuna ikustekoko,

bikote bezala nolakoak ginen, gure familia nolakoak zen jakiteko. Horrela, gero gure etxean hobetoen moldatuko lirartekeen haurrak aukeratu ahal izateko.

Hori

bai, guk ez genuen haur bat bera ere ikusi, beraiek aukeratu zituzten. Baldintza bat edo beste ipin daiteke, haurraren adina edo neska edo mutikoa izatea adibidez. Dena dela, gure asmoa, 5-6 urteko haurrak hartzea zen eta azkenean, aldundira joan eta bi hilabete ingurura edo, 2-3 urtekoak eman zizkiguten.

— Nola konpontzen zarete haur horiek noizbait joan egin daitezkeela jakitean?

— Aldez aurretik ondo mentalizatuta egon behar zara. Gainera, zenbat eta urte gehiago pasatu, are eta zailagoa izango da.

“Orain edo gero joan egingo dira, baina edozein seme edo alaba joaten diren moduan”

a da euren buruak non kokatu”

Beti daukazu “gauzatxo” hori, pentsatzen posible izan daitekeela gurekin gelditzea. Hori bai, jatorrizko familiaren arazoak konponduz gero eta bi umeak hartzeko gai direla badiote, jatorrizko familiara itzuliko lirarteke.

Guk beste ikuspegi bat erabiltzen dugu. Izan ere, guk berez beste seme bat daukagu eta badakigu orain edo gero alde egingo duela, normala da. Beste bi hauekin berdin pentsatzen dugu: noizbait joan egingo dira, hobe berandu goiz baino, baina joan, joan egingo dira, geure semea bezala.

Guk horrelaxe dugu ezarrita.

— Hurrek inoiz aukera dezakete zuekin geratzea?

— 18 urte betetakoan. Hemen ezin da bestela egin. Baina 18 urte betetakoan, beraiek adopzioa eskatu nahi izanez gero, gure nortasun juridikoa jasoko lukete.

— Sei urte daramatzazue honela. Ohikoa izaten da hainbeste denbora luzatzea?

— Bai, gehienetan horrela izaten da. Dena dela, aldundian bertan desberdinduta dituzte harrera motak: badaude motzak, luzeagoak...

— Hurrek nola ikusten dute egoera hau?

— Orain nahiko ondo. Hasieran gurasoak ikustera joaten zirenean, ez zuten oso ondo ulertzen zergatia. Gainera, hain txikitandik leku batetik bestera ibili ostean (gurasoengandik aldundira, handik geurera, hiru astetik behin jatorrizko familiarengana...), euren kezka larriena izaten da euren burua non kokatu. Hori dela eta, lehenengo bisitak izaten dira zailenak. Batez ere bisitaren hurrengo egunak. Ez zekiten oso ondo non geldituko ziren. Dena dela, urteak pasatu dira, eta orain badakite gurasoengana joan, bi ordu egin eta itzuliko direla.

— Zer nabarmenduko zenuke harrera familia egitasmo honetatik?

— Haurrak aurrera doazela ikustea. Bizpahiru urteko haurrak hartu eta orain dauden moduan ikustea, eta zure lana hor dagoela... Poztasun handia ematen dizu ikusteak haur horiek aurrera doazela, gure lanari esker.

— Ez zara damutzen adoptatu ez izanaz?

— Buruan baldin badaukazu adoptatu egingo dituzula eta gero ezetz esanez gero, bada, agian bai, baina bestela, ez. Hasieratik dakigu ez direla geureak, baizik eta geurekin daudela. Hala ere, esperientziak merezi du, benetan.

Geureak balira hobe, (neurri batean badira) baina ez naiz inoiz damutu.

— Haur hauek jatorrizko familiarengana itzuliko balira, hartuko zenuke besterik?

— Orain balitz, bai. Duda barik. Hori bai, honelakoetan adinak zeresan handia du...

— Zer esango zenioke honelako zerbait egitea pentsatzen ari den baina oraindik oso argi ez duen bikote-ari?

— Lehenik eta behin, dituzten zalantza guztiak argitzea, informazioa eskatu eta hori guztia. Ondoren, apur bat animatuta daudenei, guztiz animatzeko esango nieke.

Dena dela, kontuz ibili beharra dago eta berriz diot: gauzak argi izan behar dira. Bestela hurrek asko sofritzen dute. Kanean galdetu egiten diete, gauza arraroak esan... Orduan euren egoera argitzen saiatzen dira.

Oso komenigarria da gizarteak argi eta garbi jakitea haur hauen egoera zein den, gero azalpenegoki bat eman ahal izateko norberaren seme-alabei. ■

• ARTEA •
Eskulanak eta lientzoak
ENMARKAZIOAK
Laminak, Izpiluak,
Margoak
Ferrerias, 11 Tel.: 943 - 77 10 95
ARRASATE

BITTORI
ERRETEGIA
Eguneko menua • Kartako menua
Especialitateak: legatz kokotxak eta txuletak
Araba Etorbidea, 3 ARRASATE Tel.: 943 79 55 82

S. CARRASCAL S.L.
Guk egindakoak:
• Sukalde altzariak
• Armairu enpotratuak
• Trastelekurako armairuak
Fabrikari erakusketa
Gipuzkoa etorbidea, 6 -1.a
Tel/Faxa: 943 79 01 82

LASER DEPILAZIOA
• Behin betikoa, azkarra, ez du minik egiten
• Depilazio sistemak, zerbitsu medikuaren bermearekin
• Aholkularitza eta aurrekontuak
Itaca Zentru Mediku eta Estetikoak
Dr. Juan Carlos de Andrés Guerra.
General Alava 7, GASTEIZ. Tel.: 945 13 92 56 RPS 492/98


Danona
KARROZERIAK
Konponketak, txapa eta pintura
Musakola auzoa, 15 • ARRASATE • Tel.: 943 79 58 06

Arrasateko Euskara liburua kalean da

Eneritz Garro, Jesus Mari Garai, Estepan Plazaola eta Jose Luis Ormaetxea "Txipi" arrasatearrak eta Jerardo Elorza oñatiarra dira *Arrasateko Euskara* liburuaren egileak.

Arrasateko toponimiari buruzko atala Jose Luis Ormaetxeak egin du. Arrasateko auzo, baserri, eliza eta basiliza, erreka, etxe aztarna, iturri, mendi eta txabolen izenak jasotzen ditu bertan.

Jerardo Elorzak Deba Garaiko eta inguruetako lexikoa, Deba Garaiko eta Araba aldeko aditzaren izen-forma eta aditza izan ditu aztergai nagusi.

Eneritz Garro arrasatearra deklinabidea, fonologia eta ahozko testuak lantzen dituzten atalen egilea da.

FAMAUEN AHOTIK

"Famauen ahotik" izeneko tartean, berriz, astekari honetako 5. aletik 75. alera bitartean izen bereko sailean kale-ratu ziren elkarrizketak datoz. Elkarrizketa hauek guztiak Mondragoeko pertsona ezagunei egindakoak dira.

Liburua Arrasateko Udalak argitaratu du. Arrasateko

ARRASATEKO EUSKARA



ARRASATEKO UDALA
1999

"Arrasateko Euskara" liburua salgai dago Arrasateko liburutegietan.

Udaleko Euskara Zerbitzuak egin du koordinazio lana. Andoni de Bedialauneta Arrasateko Udaleko Euskara batzordeburuaren iritziz, "liburu hau oso garrantzitsua da, Arrasateko euskara eta hitzak batu eta kontserbatu egingo baitira, eta horrek

euskara aberasteko balioko baitu".

Arrasateko Euskara liburua Arrasateko liburutegietan egongo da eskuragarai, 1.000 pta. ren truke. Argitaratzailea Arrasateko Udala izan da, eta 1.000 ale kale-ratuko dira.

Saria bertsoan

Gasteizen egindako eskola publikoaren festan 2. saria irabazi zuen bertsoan Lur Delgadok. Lurrek 11 urte ditu eta Lehen Hezkuntzako 6. maila egiten ari da Aretxabaletako Kurtzeberri ikastetxean. Inauterien gaia izan zen Lurrek jorratu zuena, eta lau kopladore osatu zituen.

Lur ez da sekula bertso eskola batean ibili, baina eskolan lantzen omen dute bertso laritza. Bertsoak egitea ere asko gustatzen zaiola aitortu digu, baina kirolak gustukoago ditu.



Lur Delgado.

Maiatzeko eskaintza

TENERIFE

Drago Apartahotela
2 Giltza

P.O. 48.000 pta.

LANZAROTE

Apartamentua
2 Giltza

Gela eta Gosaria .. 53.700 pta.

MALLORCA

Hotela**

P.O. 33.400 pta

Hotela***

P.O. 43.200 pta.

8 egun / 7 gau



Galdetu gure eskaintza bereziaz.

Iturriotz, 23 • ARRASATE • TEL.: 943 79 29 88

JUANMA VAZQUEZ, GAZTETXEKO MARGO IRAKASLEA

“Nire kabuz ikasi dut marrazten”

Juanma Vazquez 24 urteko arrasatearrak margolaritza ikastaroa ematen du gaztetxean. 11 bat ikasle biltzen dira astean birritan, astearte eta asteazkenetan, eta guztira lau ordu inguru ematen dute margotzen. Batzuei besteei baino gehiago kostatzen zaiela jakinarazi digu Juanmak, baina guztiei nabaritzen omen zaie ikasteko gogoia.



— Noiztik duzu margolaritzarako zaletasuna?

— Betidanik gustatu zait margotzea eta marraztea. Eskolaurrean nembiletetik, nirekin daramadan zaletasuna da.

— Non garatu duzu zaletasun hori?

— Nik ikasi dut neure kabuz. Dena den, Leioako Arte Ederretako fakultatean ere bi urtez aritu nintzen ikasten.

— Nola hasi zinen gaztetxean margolaritza eskolak ematen?

— Jendeak gogoia zuen horrelako zerbait egiteko, eta denon artean sortu zen ikastaroa hasteko asmoa. Gaztetxean lan egiten dudanez, ezer egiteko ez daukadanean marrazteari ekiten diot. Jendeak badauka nire zaletasunaren berri.

— Noiz hasi zineten eskolekin?

— Duela bi hilabete edo. Ospital zaharreko gela batean eman izan ditugu orain arte, baina orain hutsarazi egin dituzte hango gela guztiak, eta gaztetxera eraman behar dugu material guztia.

Udalak orain margolaritza lantzen duten herriko gazteentzat egoitza bat irekitzeko asmoa omen du, eta horrelako zerbait beharrezkoa ikusten dut.

— Erraza egin zaizu eskolak ematen hastea?

— Hasiara batean erraza ematen duen arren, hori ere ikasi egin behar da.

— Zein material erabiltzen duzue marrazteko?

— Oinarria lantzen ari garenez, arkatza eta paperarekin nahikoa dugu momentuz. Olio margolaritza ikasi nahi duenik ere badago, baina lehenengo beharrezkoa da oinarritzko ezagutza izatea. Gauzak naturalean marrazten ditugu, makurtzea, forma, bolumena, proportzioak... kontuan hartu eta argiarekin objektuek duten harremana zainduz. Zeharo bestelakoa da gauzak naturalean marraztu edo kopiatzea, naturalean begia ohitu egin behar izaten baita gauzak beste era batean ikustera.

— Eskolen oinarria praktikoa da, beraz?

— Bai, baina praktika lantzeko ere aurrez teoria jakin beharra dago.

— Gaztetxeko ikastarotik aparte ematen duzu eskolarik?

— Ez, baina emango nituzke. Jendeak nahiko balu, gustura asko eman-go nituzke.

aste gazte

■ ESKOLA GRADUATUA

• Eskola graduatua ateratzeko azterketak prestatzen baldin bazabiltza, izena emateko epea: apirilaren 6tik 30era.

■ GAZTEAK LANKIDETZAN

• 20-31 urte arteko gazteei zuzenduta, udako 3 hilebetean Hirugarren Munduko herrietan antolatzen dituzten elkarlan eta lankidetzak jardueretan parte hartzeko aukera. Informatikoak, ekonomilariak, medikuak, erizainak, osasun laguntzaileak, pedagoak, begirale edo hezitzaile sozialak, ingeniariak, agronomoak, arotzak, elektrizistak, e.a., behar dituzte, ikasketak hauetakoaren bat egina izatea beharrezkoa ez den arren. Epea: martxoak 31.

■ UDALEKUAK

• Euskal Udalekuak, Abaiagar, Bernedo, Goñi eta Urdiroreroako. Izena emateko azken eguna: martxoak 25.

■ LANA

• Justizia Administrazioako agenteen kidegoan sartzeko hautaprobetarako deialdia. Epea: martxoak 23.

• Getxoko Andres Isasi musika eskolarako biolin-biola irakaslea eta pianojole laguntzailea behar dira. Epea: martxoak 25.

• Nafarroako Foru Komunitaterako goi mailako euskara teknikaria. Epea: martxoak 27.

• Aukera berdintasunerako udal planetarako teknikari aholkularia. Epea: apirilak 9.

Berri gehiagorako:
GAZTE ZERBITZUA
☎ 943 77 00 65

“Hasiara batean erraza ematen duen arren, margolaritza eskolak ematen ere ikasi egin behar da”

Jolasplast programa estreinatuko da ATBn

Mikel Lizarralde urretxuar gazteak aurkeztuko du Jolasplast umeentzako programa. Saio hau asteartero ikusi ahal izango da ATBn, arratsaldeko 19:30etan. Galde-erantzunen tarteak, asmakizunak, abilezia frogak eta ipuinak ere izango dira aukeran Jolasplasten. Izan ere, Joxerra Agirreurreta ipuin kontalari arrasatearrak ipuin bat kontatuko du astero.




Astezkenean "Alkatearekin berbetan" saioa ikusgai ATBn.

BI TALDE

Partehartzaileek hiruko taldetan lehiatuko dute elkarren aurka, eta 9tik 12 urtera bitarteko haurrak izan beharko dute. Astero bi talde arituko dira Milar Elkorok dendarak emandako sariak eskuratzeko asmotan, nor baino nor.

LAGUNTZAILEAK

Baina Mikel Lizarraldekin izango du laguntzailerik ere bere



Asteartero, Mikel Lizarraldekin aurkeztuta, "Jolasplast" saioa.

Iana hobeto bete dezan: Lorea Urrutxua eta Maitane Ruiz de Munain.

Horrelako programetan parte hartzea gustuko baduzue eta 9 urtetik 12 urtera bitarteko adina izanez gero, aukera berria sortu zaizue ATBn.

MUSIKLASIK

Giuseppe Verdiren *La Traviata* eta *Aida* operak eta Georges Bizeten *Carmen* entzun ahal izango dira Iñaki Olai-zola eta Marta Izagirreraren saioan. Martitzeneko gaueko 21:30etan. Beraz, musika klasikoaren zaleok baduzue operaz gozatzeko aukera.

Asteazkenean, berriz, Alkatearekin Berbetan saioan izango dira Joxe Aranzabal eta Arrasateko beste hainbat kazetari. Iluntzeko bederatzia aldera, Arrasateko alkateak hartuko du, beraz, protagonismo osoa ATBn.

■ ATBren programazioa

LARUNBATA, 20	ASTELEHENA, 22	ASTEARTEA, 23	ASTEAZKENA, 24	OSTEGUNA, 25	OSTIRALA, 26
13:30 Asteko programarik interesgarrien errepika: Munduari Bueltaka, Mahai Ingurua, Kaleidoskopia, Soinuz blai eta Astebete.	13:30 Albiste aurrerapena. 13:35 Astebete errepikapena. 20:00/20:30/21:00 Berriak. 21:30 Mondrasport Itxaro Zubillaga kazetariak aurkezturik, asteburuko kirolei errepassoa.	13:30 Albiste aurrerapena. 13:35 Mondrasport (errepika). 19:30 Jolasplast. 20:00 Albiste Bilduma. 20:10 Korrika 99 berezia. 20:40 Musiklasik. 21:10 Albiste Bilduma. 21.20 Korrika 99 berezia. 21.50 Musiklasik.	13:30 Albiste aurrerapena. 13:35 Korrika 99. 14:10 Musiklasik. 20:00/20:30/ Berriak. 21:00 Alkatearekin Berbetan.	13:30 Albiste aurrerapena. 13:35 Alkatearekin Berbetan (errepika). 20:00/20:30/21:00 Berriak. 21:30 Ekilan. Alberto Gorritibereak zuzendutako programa. 22:00 Soinuz Blai.	13:30 Albiste aurrerapena. 13:35 Ekilan (errepika). 20:00/20:30/21:00 Berriak. 21:30 Astebete. Asteazkenean gertatu diren albiste garrantzitsuen errepasoa Maider Osak aurkeztuta. 22:00 Soinuz Blai. Iban Gonzalezekin aurkezturiko musika saioa.
IGANDEA, 21					
13:30 Asteko programarik interesgarrien errepikapena: Munduari Bueltaka, Mahai Ingurua, Kaleidoskopia, Soinuz blai eta Astebete.					



Jose Mari Loiti.



Alberto Gorritiberea.

Pixkanaka-pixkanaka
gauza asko ezagutzen ari zara berarekin batera.

Hazten ikusten duzu
eta lagundu nahi diozu.
Ez dakiola hain zaila egin.
Bere lekua beharko du,
bere asmoak izango ditu,
bere logela...

Eta altzari berriak behar izango ditu, ez?



Zuk nahi duzun finantziazioa, nahi bezala
ordain dezazun: 24 hilabetean interesik
barik edo 6 hilabetean, baina momentuan
ordaintzerakoan daukazun beherapen
berarekin ordain dezakezu. Zeuk erabaki.

TODO Mueble **Kabía**
DALLA OLLA

Gipuzkoa Etorbidea, 28 • Tel. 943 79 27 70 • **ARRASATE**

ORDUTEGIA: 10:15etatik 13:00etara eta 16:00etatik 20:00etara. Larunbatak barne.

ETXEBIZITZAK

1. Saldu

• Etxebizitza salgai. Tel.: 943 79 45 58.

• Etxebizitza salgai Elorregi auzoan, Bergaran. Tel.: 943 76 07 47.

2. Erosi

• Etxebizitza erosiko nuke Arrasaten. Tel.: 649 20 35 12.

4. Errentan hartzeko

• Pertsona bakarrarentzako teilatupea alokatu nahi dut. Tel.: 943 79 59 60.

• Bikoteak etxebizitza alokatuko luke. Tel.: 943 65 45 40 / 943 72 30 25 (20:00etatik 22:00etara).

• Etxebizitza nahi dugu alokatu, Arrasaten edo inguruan. Tel.: 94 447 04 61

5. Etxeak osatzeko

• Etxebizitza osatzeko pertsona bat behar dugu Aramaion. Tel.: 617 600 265 (bertan mezua laga).

• Logela baten bila nabil etxebizitza partekatuta batean. Tel.: 943 42 98 19 (Noel).

• Pertsona euskalduna behar da etxebizitza osatzeko Arrasaten. Tel.: 943 85 04 86.

• Pertsona bat behar dugu etxebizitza osatzeko. Astean zehar Cordoba y Oro, 6 - 5. ezkerrera jo edo beste la deitu asteburuetan 943 88 43 33 telefonora.

GARAJEAK

7. Saldu

• Garaje toki bat saldu nahi nuke Munarren. Tel.: 943 79 44 07.

• Garaje itxia salgai Larrea aldean, 25m²koa (bi autorentzako lekua dauka). Tel.: 943 79 69 41 (Mari).

• Garajea salgai Laukalen (Roneon). Tel.: 943 79 01 71. (19:00etatik 22:00etara).

• Garajea salgai Kontzezinon. Tel.: 943 79 54 07.

• Garajea salgai. Bi autorentzako lekua du. 40m². Aldai kalean. Tel.: 945 46 14 78.

ETXEBIZITZAK

1. Saldu
2. Erosi
3. Errentan emateko
4. Errentan hartzeko
5. Etxeak osatzeko
6. Bestelakoak

GARAJEAK

7. Saldu
8. Erosi
9. Errentan emateko
10. Errentan hartzeko
11. Bestelakoak

LOKALAK/ORUBEAK

12. Saldu

13. Erosi
14. Errentan emateko
15. Errentan hartzeko
16. Bestelakoak

LANA

17. Eskaintzak
18. Eskaerak
19. Bestelakoak

IRAKASKUNTZA

20. Eskaintzak
21. Eskaerak
22. Bestelakoak

MOTORRA

23. Saldu

24. Erosi
25. Bestelakoak

DENETARIK

26. Saldu
27. Erosi
28. Trukatu
29. Eman
30. Hartu
31. Galdtu
32. Aurkitu
33. Bestelakoak

HARREMANAK

34. Agurrak
35. Kontaktuak
36. Deialdiak
37. Bestelakoak



943 71 25 11

ARRASATE PRESS • Otalora Lizentziatua, 31 • 20.500 (ARRASATE)

Sail honetan agertzen diren iragarkiak dohainekoak dira. Partikularren iragarkiak argitaratzen ditugu bakarrik. Arrasate Pressek ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik. Astearte eguerdia baino lehen deitu behar da iragarkia jartzeko.

9. Errentan emateko

• Garaje itxia alokatzeko, Urbarri Etorbidean. Tel.: 943 79 35 24.

10. Errentan hartzeko

• Garaje bat alokatuko nuke Musakola aldean. Tel.: 943 79 21 46.

LOKALAK/ORUBEAK

12. Saldu

• Lanean dabilen negozioa eskuz aldatuko nuke. Tel.: 943 79 47 85.

• Kalealdean, baina Zarugaldetik gertu 100m²ko bi solairu dituen tokia salgai. Tel.: 943 79 07 24.

14. Errentan emateko

• Ile apaindegia eta edertze aretoa alokatzeko. Santamainan, 14-behea. Tel.: 943 79 73 43 (Mertxe).

• Enpresentzako lekuak dauzkagu alokatzeko, ura eta argindarrarekin. Era honetako jarduerak egin litezke hemen: muntaketa, prentsa, pinta-

keta, soldaketa eta galdaragintza. Tel.: 608 770 786.

• Urbarri etorbidean 90 m²ko tokia alokagai. Tel.: 943 79 75 37 (Iluntzeko 20:00etatik aurrera).

15. Errentan hartzeko

• Lagun talde batek hutsik duzun txoko hori alokatuko luke. Tel.: 943 79 65 31.

• Gazte talde batek toki bat alokatu nahiko genuke Arrasaten. Tel.: 943 79 40 65 (Maitane).

• Garaje edo toki txiki bat alokatu genuke. Tel.: 943 79 72 93.

LANA

17. Eskaintzak

• Esperientziadun andra gertu etxeko lanak egiteko orduka. Tel.: 943 79 11 46 (asteburuetan deitu).

• Zazpi urteko esperientziaduna lan egiteko prest jateko edo taberna batean zerbitzari bezala. Tel.: 943 77 08 13.

• Neska bat behar dugu umeak zaindu eta etxeko lanak egiteko. Tel.: 943 79 73 82.

• Ingeles eta frantsesezko itzulpenak egiten ditugu. Merke eta azkar. Tokiko profesionalak. Tel.: 943 77 18 23.

• Neska arduratsuak umeak zainduko 20:00etatik aurrera 943 71 53 74 telefonora.

18. Eskaerak

• Emakume arduratsua behar dugu umea zaindu eta etxeko lanak egiteko. Tel.: 943 79 23 44.

• Enpresa batek mezulariak behar ditu, 1.200 kg. edo gehiagoko furgonetarekin ibiltzeko. Tel.: 943 79 92 77.

• Geriatria edo klinika laguntzaile titulua duten langileak behar dira. Kontuan hartuko da lanean aritu izana. Bidali curriculuma Atsedean 23 postakutxara. 20500 Arrasate.

• Gizonen ile apaintzailea behar da. Tel.: 943 79 84 88.

• Zerbitzaria behar da, asteburuetan taberna batean lan egiteko. Tel.: 943 78 35 26.

• Sukaldari laguntzailea behar da taberna batean lan egiteko. Tel.: 943 78 35 26.

• Esperientzia duen andra behar da pertsona nagusi bat zaintzeko. Tel.: 629 26 39 45.

• Emakumea behar da bi ume zaindu eta etxeko lanak egiteko. Deitu 943 77 07 33 telefonora.

• Pertsona bat behar da taberna bateko garbitasun lanak egiteko. Tel.: 945 44 50 86.

• Pertsona bat behar da taberna batean zerbitzari lanak egiteko. Tel.: 945 44 50 86.

IRAKASKUNTZA

20. Eskaintzak

• Fandango eta arin-arin ikastaroa helduentzat. Moises Azpiazu dantza taldeak zuzenduta. Larunbat goizetan 11:00etatik 12:30ak arte. 2.000 pta. hileko. Tel.: 943 76 15 40.

• EGA agiriaren jabe den irakaslea eskola partikularrek emateko prest. Tel.: 943 79 86 28.

• Margolaritza eskolak ematen ditut,

marrazki artistiko eta olio estiloetan.
Tel.: 943 79 19 23.

21. Eskaerak

• Hiru neskak ingelesezko eskola partikularrak hartuko genituzke. Tel.: 943 79 09 86 (Naiara) eta 943 79 09 71 (Nerea).

MOTORRA

23. Saldu

• Rieju RS1 Evolution motorra salgai. 6.000 km. Tel.: 943 79 25 73.

• Opel Corsa 1.2 salgai, egoera eta prezio onean. Tel.: 943 79 79 18. (Gorka).

• Citroen Xara 1.600 salgai. 90 cv. Gasolina. Matrikula: SS-AZ. Tel.: 610 64 52 04 (18:00etatik aurrera).

• Ford Escort RS-Turbo, estrarekin, salgai. Matrikula: SS-AG. Tel.: 639 38 87 77

• Renault Super 5 zuria SS-AB salgai. Oso egoera onean eta prezio interesgarrian. Tel.: 943 79 68 75.

• Opel Corsa GSI (VI-K) salgai. Tel.: 609 28 65 82 (20:00etatik aurrera).

DENETARIK

26. Saldu

• Salgai: gitarra elektrikoa (beltza, hiru pastillak), estalki gogorra (berria), anplifikadorea (Roand markakoa, efektu eta guzti, flangerra adibidez), distorsio pedala, metal zone, guagua pedala (Vox markakoa), kableak, gozagailua. 60.000 pta. Helbide elektronikoa: FD1@decgi.e-mail.com

• Bulego altzariak salgai, prezio onean. Tel.: 943 79 84 35 (Luis).

• Idazteko mahai txikia bi aukirekin, bi sofa eta egongelako mahaia salgai. Tel.: 943 79 07 73.

• Bigarren eskuko zeharkaldiko eskiak salgai. Tel.: 943 79 06 33. Iñaki.

• Hordago argitaletxeko "Documentos" liburuaren 18 liburuki salgai. Prezio onean. Tel.: 943 79 59 43.

• Egongelako mahaia salgai. Berria. 1m. luze, 0,5m. zabal eta 40 cm. garaikoa. Prezioa: 25.000-30.000 pta.. Tel.: 943 77 16 45 (deitu goizean edo gaueko 22:30etatik aurre-

ra. Ostiraletan egun osoan).

• Yamaha piano elektrikoa eta clavinova salgai. CLP-153 S. Hiru urteko bermearekin. Prezioa negoziatzen. Tel.: 943 79 89 57 (Gaueko 20:00etatik 22:00etara).

• Macintosh II Ci ordenagailua salgai. 60.000 pta. Tel.: 943 79 71 59 / 943 64 08 57. Gaez.

27. Erosi

• Egoera onean dagoen ordenagailua interesatuko litzaidake. Hainbat programa instalatuta eta inpresora badauka, hobe. Windows 98 -Excel 97. Tel.: 943 78 35 14.

31. Galdu

• Duela hilabete inguru katu siamesa galdu nuen San Josepe inguruetan. Norbaitek aurkitu badu, deitu 943 79 21 52 telefonora, mesedez.

• Larunbatea urrezko eraztun-zigilua galdu nuen, SC siglekin. Barrualdean Vicente eta 11-3-99 data dauzka. Tel.: 943 79 85 81. Sarituko da.

32. Aurkitu

• Uribarri inguruan katu zuria topatu dugu. Jabeak dei egin dezake 943 79 51 21 telefonora.

33. Bestelakoak

• Larunbatean, eta gura barik, nirea ez den jaka bakeroa eraman nuen etxera. Nirea eraman zuenak, mesedez, dei egin diezadala 943 79 59 40 telefonora, eta horrela trukatu egingo ditugu. Elena.

• Bolinete errotako argazki bat lortu nahi nuke, kopia bat ateratzeko. Tel.: 943 72 55 92 / 609 55 08 40.

HARREMANAK

37. Bestelakoak

• Orrialede hauetako irakaskuntza saileko eskaeretan agertzen den "gastelaniako eskolak hartuko nituzke" iragarkiarekin deia hartu zuenak, mesedez deitu berriz ere 943 79 79 12 telefonora.

FAMILIA ETA GIZARTE HEZKUNTZARAKO ZENTRUA IKASTARO BERRIAK

GOIZEKO IKASTAROAK

- Farfalgintza
- Disko Dantza (Hustel)
- Adimen tailerra

ARRATSALDEKOAK


- Lorazaintza
- Jantzigintza eta konponketak
- Bizkar hezurreko giharren indartzea
- Gozogintza
- "Osasunean sendatu"

GAUEKO IKASTAROAK


- Apainketarako ohialgintza
- Geriatria: "Zaindaria, bere buruaren zainketa"

**Ikastaroaren
hasiera apirilaren
12tik aurrera**

kutxa fundazioa
fundación



**ANIMA ZAITEZ!
INFORMA ZAITEZ!**



famili eta gizarte-
hezkuntzarako zentruak
centros de formación
familiar y social

Santa Teresa, 12 • Tel.: 943 79 04 59 / 943 79 56 40 • ARRASATE



Orain Ertzaindegia dagoen tokian, 1940. urtean futbol zelai eder-eder bat zegoen. Horren adibide da aste honetako argazki hau. Atzealdean ikusten den lantegia Elma da, orain Gelma moduan ezagunagoa dena.

Orduko garaian, herriko neskatilen artean futbola ikustera joateko ohitura zabalago zegoen. Itxura denez, gainera, Bergararik askotan etortzen ziren hango futbol taldeko jarraitzaileak eta zalaparta nahikotxo izaten zuten Arrasatekoekin.

Argazki hau atera zenean adibidez, Bergararen aurka jokatu zuen Mondrak.

Argazkian agertzen diren neskatilak, Maria Luisa, Pilar, Sabina, Dolores, ezzagun bat, Felisa eta Elvira dira.

*Argazkia eta berriematea:
Maria Luisa Gonzalez.*



5 urteko bermearekin

Ordezko piezak **24** ordu

Laguntza errepidean **24** ordu

© 900 30 80 80

Lehenengo gizakia, gero makina

MENDIOLA

Araba etorbidea, z/g • ARRASATE
Erakusketa eta Salmenta: Tel.: 943 79 00 11
Mekanika eta karrozeria: Tel.: 943 79 75 64

EZ DAGO KONPARAZIORIK



Biltegia eta bulegoak: Meazterreka 6 • Tel./Faxa: 943 79 14 28 • ARRASATE
Erakusketa: Otalora 1, behea • Tel.: 943 79 07 20 • ARRASATE

ERAIKUNTZARAKO MATERIALAK

**Teknologia eskubide bat da,
ez da pribilegioa.**



Uste dugu ez duela zentzurik auto bat diseinatzeak, gutxi batzuen eskura egon behar bada. Horregatik geure erronka izan da teknologia, segurtasun eta erosotasun gorena duen autoa sortzea, baina mundu guztiaren eskura. Opel Astra berria. Teknologia eskubide bat delako, ez pribilegioa.

Serieko ekipamendua: ABS elektronikoa lau gurpiletara, lagunduriko direkzio elektrohdraulikoa, korrrosioaren kontra 12 urteko bermea duen karrozeria galbanizatua, atzealdeko ardatza efektu direkzionalarekin, garaieran eta sakontasunean egoki daitekeen bolantea, gidatzailearen jarlekua garaieran egoki daitekeena, leihoak igotzeko sistema elektrikoa, itxigailu zentralizatua urrutiko agintearekin, tamaina handiko air bag-a gidatzailearentzat, lapurretaren kontrako geldiarazle elektrikoa, funtzio askotarako pantaila:



Hor hauek daude eskuragarri: 1.6tik 2.0 16v.-ra; turbodieselelan 1.7 eta 2.0 DI 16v. Karrozeriak 3.5 atetan eta Caravan. Bukaera mailak: Club, Comfort, Elegance eta Sportive.

TALLERES OLA

OPEL
INGENIARITZA ALEMANA ZURE B

Olabarrena auzoa, z/g. Tels.: 943 76 33 44 / 45 / 46 / 47. BERGARA.

Zerbitzu ofiziala ARRASATEn

TAKOLO AUTOAK, S.L.

Araba Etorbidea 3 (escatu nabiltzia) Tel.: 943 79 05 86